

EUSKAL HERRIKO ITSASERRIEN ETNOGRAFIA ETA ANTROPOLOGIA SOZIOKULTURALA DONOSTIA

Otxotorena Errazkin Bittorirekin eta bere alabarekin elkarrizketan (1984.02.11.6.pm)

APALATEGI BEGIRISTAIN Joxemartin

Antropologo eta Donostiako Filosofia Eta
Hezkuntz Zientzien Fakultateko (Zorroaga)
Antropologia Soziokulturalako Departamentuko
irakasle (E. H. U.)

*OTXOTORENA Bittori:
Zuri, zure alabari eta zure fami-
lia hedatuari*

*Donostiako arrantzaleriari, eus-
kalerrikoari eta atzerrikoari*

AURKIBIDEA

Sarrera

I Zenbait Gogoeta.

1. Iadanik Eginda Daukadanaz.
2. Barandiaran Joxemielen Zenbait Printzipio Berreskuratzuz Praktikatuz.
3. Egungo Euskal Pertsonarteko Bost Pertsonatalde Nagusi.

II Lekuan Lekuko Ikerlana.

1. Etnografiatzko Egutegia. Donostiako Kaialdean. 13. Zenbakia: 1984.02.11.6. Bazkalostea.
2. Elkarrizketa Grabatua Eta Hitzaldutua OTXOTORENA Bittorirekin Eta Bere Alabarekin: 1984.02.11.6. Bazkalostea.
3. Etnografiatzko Egutegia. Donostiako Kaialdean OTXOTORENA Bittorirekin Argazkiak Ateratzeko Azazeta Faustino Eta Biok: 1984.03.05.1.16/17:30.

Bibliografia

SARRERA

Zenbat lan daukagun egiteko antropologian sartu berriak garenok!

Nik hiru eratako lana daukagula egiteko ikusten dut: lehenik, antropologiako ikasketak burutu; bigarren, antropologiako ikerlana egin; azkenik, euskal antropologia historikoa eskuratuz gaurkoarekin aberastu datozengoei eskaintzeko.

Bigarren motako lanean nabil, orain urte gutxi batzuk gero. Luzaroko eginkizuna izango da haxe, niretzat behintzat.

Hemen azaltzen dudan idazlana, antropologiako ikerlanen sailean amaitu dudana ahalegin bat da, amaigabea, baina ondoren egingo ditudanen bultzagarri ezinbestekoa. Agian, gehiago ere izango da. Ez dakit! Ateak irekita daude.

I - ZENBAIT GOGOETA

1

Iadanik Eginda Daukadanaz

Euskal Herriko Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala bildumarako iadanik hiru herriri buruz eginda daukat etnografiatzko lanak, eta, gainera, hiruretan antropologia soziokulturalaren hastapena agertuta daukat. Direlako etnografiatzko hiru lanak, herri hauetakoak eta aldizkari hauetan argitaratu dira edo argitaratzen daude:

1.a, Ondarrun, *Bermeo*, 4, aldizkarian, ok. 273-307.

2.a, Ataunen, Eusko Ikaskuntzak laster argitaratuko duen liburu honetan: «*In Memoriam*» *Omenaldia Aingeru Irigarairi* (izenburua gutxigoraberakoa da).

3.a, Oletan (Lekeitio), Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografia sailaren *Cuadernos De Sección* aldizkarian laster argitaratuko da.

Gaurkoarekin, laugarrena azaltzen dut. Hone-raino iritxi naizela konturatzearekin batera bildumaren lehen aldia amaitutzat eman behar

dudala zerk edo zerk esaten dit. Laugarren honekin, beraz, aldi hau beteta dagoela diotsot irakurlegoari.

Jarraipenean, bildumaren bigarren aldiari hasera emango diot, nahiz eta orain orain jakin ez nola emango diodan. Berriro ere aurrerantz eginala eginen dudala badakit.

2

Barandiaran Joxemielen Zenbait Printzipio Berreskuratuz Praktikatu

Lan haundi haundien ezaugarri bat, zera da: denbora askoren zehar egindako ausnarketaren ondoren bakarrik uler daitezkeela, eta orduantxe beren izatasun osoz agertzen direla. Gertakizun hau egilearen mailan nahiz bere hartzailegoarenean ematen da.

Goazen, aurrena, egilearen mailan, hots, Barandiaran Joxemiel berarentzat hainbat urtez gero jarraipenean burutzen datorren lan izugarria hasera haseratik nola deskribatzen zuen ikus-tera. Horretarako, beraren kronologian urte nagusienetarikoa bilakatu diren horietako batetan geldituko naiz, orain oraingoz, 1921-eko urtean. Ataundar antropologoaren bizitzan eta bibliografian data nagusitarikoa dugu, bene benetan, 1921-ekoa; gehiago oraindik, euskal antropologiaren historia guztian, baita ere.

Barandiaranek sortzaile onenak egin litzazkeen lan mota aipagarrien guztiak burutu izan ditu, eta horietan tinko ariketan jarraitzen du oraintxe bertan ere, bere larogei eta hamaseigarren urtera dihoalarik. Lan mota aipagarri horiek, hauexek dira:

1. Ikasketa nagusiak egin.
2. Ikerkuntza sistematikoa eta iraunkorra planteatu eta egin.
3. Irakaskuntza egin.
4. Lankide berriak egin.
5. Ikerlan pertsonalak argitaratu artikulu eta liburuetan, eta hitzaldietan.
6. Lankideren ikerlanak argitaratzeko aldizkari, bilduma eta beste motaren batetako idazpideak sortu, zuzendu.

Azken edo seigarren lan mota aipagarriari dagokionez, Barandiaranek 1921-ean bi aldizkari sortu zituen, *Hojas de Eusko-Folklore* (=H.E.F.), eta *Anuario De La Sociedad De Eusko-Folklore* (=A.E.F.). Horrexegatik, gorago nioen, 1921-eko

urtea Barandiaranek bizitzan eta bibliografian bezala euskal antropologia historia guztiarenean data nagusienetarikoa dugula. Ondorengo urteetan aldizkari berri gehiago ere sortuko ditu. A.E.F. aldizkariak bakarrik gaur arte iraun du, eta biharko euskal antropologiarentzat bere iraupenak esanahi sendotzailea, oroitzatzailea eta bultzatzailea luke.

Barandiaranek mailan lan haundi bilakatu izan dena, hots, aldizkari batzuren sortzaile, lana hartzaile izan diren, garen eta izango diren guztientzat beste horrenbeste bilakatu da.

Hara hor, bada, Barandiaran Joxemielen antropologigintzaren printzipio bat, gaur guk, euskal antropologiaren jarraipenaren arduradun denok, berreskuratuz praktikatu behar dugularik. Hots, geure ikerlanen bideak geuk geure eskuetan eduki behar ditugu.

Beste bi printzipio aipatuko ditut, segidan.

A.E.F.-aren eta H.E.F.-aren lehen zenbaki batan finkatuz gero bi printzipioak aurkitzen dira, zeinei Barandiaranek beti zutik iraunarazi die.

Printzipioa: «Euskal Izpirituaren, Kulturaren Sakontasunera» ailegatu. A.E.F.-aren lehen zenbakiaren sarreran, 1921-ean, honela zioen Barandiaran Joxemielek:

Dicho se está, pues, que en esta delicada labor, o mejor dicho, en este difícil sendero que nos ha de conducir a las profundidades del espíritu vasco y a las lejanías de su pasado, procuraremos sustraer nuestra mente a influencias no justificadas, a principios no probados, dando de mano a aquellos métodos y teorías cuyos resortes, si no inducen francamente a los abismos del error, tienden, cuando menos, a sacrificar en aras de sus prejuicios las realidades aún no investigadas, las verdades todas del porvenir. (BARANDIARAN, J. M., 1921a, 1981: 5).

Eta H.E.F.-aren lehen zenbakiaren sarreran, 1921-ean:

Las producciones espontáneas del espíritu vasco, en particular aquellas que se refieren a estados de cultura anteriores, restos materiales de un pasado cuya memoria ha llegado hasta nosotros en forma de leyendas, tradiciones, creencias, costumbres y prácticas religiosas y mágicas; las mutuas relaciones de estos elementos y su agrupación sistemática constituyen el objeto primario e inmediato del **folklore** vasco. (BARANDIARAN, J. M., 1921b, 1981: 1).

A.E.F.-aren bigarren zenbakian, 1922-koan, «Euskal Arima Herrikoien Manifestapen Guztien Bilketa» aipatzen digu Barandiaranek:

El objeto de esta Sociedad es recoger todas las manifestaciones del alma popular vasca y

sobre toda esta base realizar estudios comparativos y de historia cultural, de psicología, de arte, de literatura y de otras ramas del saber que no hace falta enumerar aquí. (BARANDIARAN, J. M., 1922, 1981: 5).

Eta 1924-eko A.E.F.-an, 4. zenbakian, «Euskal Etnologiazko Zientzia»-ren eraikuntza aipatzen du Barandiaranek:

Creemos, pues, fundadamente que no se hará esperar el día en que, reunido un considerable caudal de hechos concernientes a la vida popular, nos hallemos capacitados no sólo para abordar los problemas de nuestra actualidad cultural, sino también para levantar la ciencia etnológica vasca sobre bases firmes e incommovibles. (BARANDIARAN, J. M., 1924, 1981: VI).

Printzipio hau, egun, euskal antropologiaren jarraitzaileak berreskuratuz praktikatu behar du, zein egiteko daukan bere indar osoarekin.

Printzipioa: «Datu Bilketa Edo Etnografia» egin, lehen lehenik 1921-ean argitaratutako A.E.F.-aren, lehen zenbakian, sarreran, Barandiaranek hauxe zioen:

Como una muestra de la labor realizada durante este año, hemos querido publicar el presente anuario, concediendo en él mayor importancia y extensión al material recogido que a párrafos doctrinales, pues creemos sinceramente que los ejemplos enseñarán mejor que otros medios lo que el campo de nuestros estudios abarca, y servirán de base a nuevas investigaciones (1).

Además, nos hallamos profundamente convencidos de que una sistemática recopilación de hechos ha de preceder a las generalizaciones científicas y al estudio comparativo de los materiales. (BARANDIARAN, J. M., 1921 a, 1981: 4-5).

Eta 1921-ean, baita ere, argitaratutako H.E.F.-aren sarreran, Barandiaranek honela zioen:

Investigar y recoger tales datos es la primera labor que conviene realizar. Tal es el fin que persiguen estas hojas contando con la ayuda de Dios y la colaboración de todos los amantes del **folklore** vasco. (BARANDIARAN, J. M., 1921 b, 1981: 1).

Egun, printzipio honi dagokionez, euskal antropologiaren jarraitzaileak badu baita ere berreskuratuz gero praktikatzekorik.

Azterketa honen ondorio bezala, puntu hauek azpimarkatzen ditut:

1.a: Argi eta garbi gelditzen da Barandia-

ran bere nahiz besteen ikerlanen argitarakuntzan lan izugarria egiten datorrela, bere ikerlari bizitzaren haseratik. Sortzaile haundien puntu hori erabat bete duela, bistan daukagu.

2.a: Barandiaranen Ikerkuntza sistematikoa eta iraunkorraren printzipio batzu zeintzu izan diren ikusi ditugu. Horiengatik ere sortzaile haunditasuna zor zaiola, bistan daukagu.

3.a: Barandiaranen ikerkuntzaren haunditasuna bizitza luze baten zehar egindako lanek frogatu diote egilea berari, lehenik, eta bere hartzailegoari, gero. Gaur, euskal antropologia jarraitzaileak denbora luzez, ere, beharko du aurtu egile honek denbora luzeko ausnarketaz burutu duena berreskuratuz erabat praktikatzeko.

Hirugarren puntuaren bidez, bada, II. artikularen buru buruan diodana betetatzat ematen da, hots: egile haundien lanak denbora askoren zehar egindako ausnarketaren ondoren bakarrik uler daitezkeela nola egilearen mailan hala bere hartzailegoarenean. Gaur, euskal antropologia jarraitzaileak, bere egitekoetan sendo aritzeko, Barandiaran egile haundiaren lanak ausnarketa luzeen ondoren berreskuratuzera derrigorrez iritxi beharko du, aitzitik, «jarraitzaile-tasuna» edukiz hustuegi geldituko zaio. Fenomeno sozial honen jakitun zen Barandiaran bera, bere ikerkuntzaren haseratik, *Anuario De La Sociedad De Eusko-Folklore* aldizkaria plazaratzeko lehen zebakiari egindako hitzaurreko («Nuestro Empeño») pasarte batetan zioenak erakusten digunez:

Este gran movimiento folklórico, continuado hasta nuestros días, ha repercutido también en el País Vasco, si bien la investigación se ha realizado en él hasta ahora en pequeña escala. Fruto de aislados esfuerzos individuales, muy meritorios ciertamente, aunque no debidamente orientados en todos los casos, son las recopilaciones de ciertos ramos del saber popular vasco que han visto la luz pública desde hace algunos años y que han de constituir la base de ulteriores y más sistemáticas informaciones. Los nombres de Araquistáin, Trueba, Webster, Vinson, Cerquand, Iturralde, Baráibar, Azkue, Urquijo, Campión, Soralue y otros sonarán siempre en los oídos de quien desee conocer esta primera fase de los estudios folklóricos vascos. Mención especial merecen las investigaciones y estudios realizados por el Dr. Aranzadi, que ha sabido tratar multitud de problemas de nuestro folklore, sometiéndolos a métodos rigurosamente científicos. (BARANDIARAN, J. M., 1921, 1981: 3).

Halere, mende honetako gure euskal antropologo klasikoek ez dituzte behar beste berreskuratu eta praktikatu heuren aurreko antropologiaren lanak. Gure artean, oraintxe bertan ere, euskal antropologia jarraitzailearen kideen gare-

(1) Conviene advertir que no publicamos aquí toda (sic) el material recogido, sino una pequeña parte del que han presentado aquellos de nuestros socios de número que, según los estatutos de la Sociedad, tienen obligación de redactar el Anuario.

non artean alegia, ez da asko erabiltzen orain arte egindakoaren berreskuraketa eta praktika-keta bikotea. Horren ezaugarri nagusienetarikoa bat, euskal antropologiaren historia kritiko eta konparatzaile lanari ematen zaion leku txikia da.

3

Egungo Euskal Pertsonarteko Bost Pertsonatalde Nagusi

Euskal Herriko Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala bilduma piskaka piskaka egiten joatea erabaki nuenean, ederki ohartzen nintzen egungo euskal pertsonartean mota desberdinetako bizimoduz osotutako pertsonataldeak daudela, gure inguruko beste herrietan bezala, eta ia ia munduko guztietan bezala. Nola izendatu pertsonatalde hauetariko bakoitza?

Antropologian nabilenez, hiztegia zientzia honen kriterioen arabera behar dut erabili, denboraren zehar egindakotik eta gaur egiten denetik hartuz. Honi gaineratuz neronek egindakoa.

Oraingoan, egungo euskal pertsonartean elkarrekin bateginaz bizi diren pertsonatalde desberdinak kontzeptu egoki batekin izendatzeko, nere baitan aritzea beharrezko ikusi dut. Euskal kultura izanik nire lekuan lekuko ikerlanaren kokaketa, beste kulturetakotik hartu beharrean, berari prestakuntza eskatzea bidezko eta beharrezko deritzot. Euskal antropologiaren tradizioan ez dut aurkitu bilatzen nuen kontzeptu hori, landurik. Neronek, beraz, sortzen dut.

Pertsonarte batetan dauden mota desberdinetako bizimoduz osotutako pertsonataldeak izendatzeko kontzeptu konposatu batetaz baliatzen naiz: bere lehen elementuak bizimodu mota adierazten du eta bere bigarren elementuak bizimodu mota bera duen pertsonataldea.

Gaur Euskal Herrian bizimodu nagusi desberdinetako zenbat pertsonatalde dauden esango dut:

- Itsasgintzatik bizi diren pertsonataldeak *itsaserriak* izendatzen ditut.
- Mendigintzatik bizi diren pertsonataldeak *mendierriak* izendatzen ditut.
- Lurgintzatik bizi diren pertsonataldeak *lurrerriak* izendatzen ditut.
- Hirigintzatik bizi diren pertsonataldeak *hirierriak* izendatzen ditut.
- Industrigintzatik bizi diren pertsonataldeak *industrierriak* izendatzen ditut.

Itsas-, mendi-, lur- eta hiri- elementuek lekutasuna azaltzen digute. Industri- elementuak, berriaz, lanketa modu bat. Bost hitz konposatzaile hauek egungo euskal pertsonartean beste bost bizimodu mota oinarritzeko erakusten dutela, ezin ukatuzkoa da. Horietariko bakoitzaren deskribapena ez da erreza. Lekuan lekuko ikerlanek bakarrik gida gintzakete deskribapen hauen buruketara.

Nik *Euskal Herriko Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala* bildumaren zehar, egungo euskal pertsonarteko bost pertsonatalde horietariko bakoitzean pertsonak heuren taldea kulturazkoki nola bizi duten, ikusten duten nahi dut lortu. Gainera, beste pertsonaldea eta guzti hauen artean osotutako talde nagusia, hots, Euskal Herria, nola bizi, ikusten duten. Eta baita ere, heuren Herriaz kanpo beste Herrietaz bizi, ikusten dutena.

Horrela, *Bermeo*, 4. aldizkarian nioena lortu ahal izango dut:

Urte batzuren buruan, azterlan haundi hauekin azalduko dut gaur egun euskal arrantzaile herriei (eta beste pertsonataldeei) (1) buruzko antropologiazko pentsamendu orokor bat (eta egungo Euskal Herriari buruzkoa, mundu osoarekiko hartuz) (1). (APALATEGI BEGIRISTAIN, Jm, 1984.09:9).

II - LEKUAN LEKUKO IKERLANA

Hamabi urtetatik hogeitaz urtera arte Donostiako apeztegian apezgai bezala ikasketak egiten egon nintzen. Eta laster duela lau urte Donostiara bizitzera etorri nintzen, bertako Filosofia Eta Hezkuntz Zientzien Fakultatean (E.H.U.) antropologia soziokulturaleko irakasle izendatu nindutelarik.

Hamar urte horietan, Donostiako hiria zuzen zuzenean ezagutzeko egokiera eduki dut. Berari buruzko antropologiazko ikerlanak egiten ari naiz, gaurkoan horietariko bat argitaratzen dudalarik.

Donostiako itsaserriko pertsonataldean eramandako ikerlana da hemen azaltzen dudana, hain zuzen.

Euskal antropologiaren kondairan oso gutxi ikertu da euskal itsaserria. Barandiaran Felipe antropologoak, bere liburuarekin, *La Comunidad De Pescadores De Bajura De Pasajes De San Juan (Ayer Y Hoy)*, 1982-an argitaratua, bide haundi bat zabaldu digu alor horretan. Liburuak

(1) Parentesizkoa orain gehitu dut.

eta bere egilearekin dudan hurbiltasunak bultzatu naute euskal itsaserrietan ikertzera.

Ikerlan hau bigarrena da euskal itsaserrietaz. Ondarruri buruzkoa izan zen lehenengoa, *Bermeo*, 4. aldizkarian argitaratua, 1984-ean.

Lekuan lekuko ikerlanean nabilenean, berrie-maileek esandakoaz gainera, neronek ikusitakoaren, bizitutakoaren berri ematen dut. Guzti horrekin etnografiatzeko egutegia osotzen dut. Zerbait grabatzen badut, gero hitzez hitz transkribatzen dut. Ikusitakoa, bizitutakoa egun berean edo ahalik eta aguron idazten dut, oroimenaren baitako berriak baitira. Etnografiatzeko egutegiaren buruan, berriak bildu ditudan eguneko data ematen dut; eta bere amaieran, idatzi dudanez. Argazkiak ere ateratzen ditut, egokiera dudanean. Kulturazko materiale mota gehiago biltzen ahalegintzen naiz, baita ere. Bilketa ahalik eta zabalena eta sakonena dauka egin beharra etnografariak.

Segidan, beraz, Donostiako itsaserriko emakumezko arrainsaltzaile den Otxotorena Errazkin Bittorik egondu naizenean jasotako berriak azalduko ditut, etnografiatzeko egunkari bezala, hots, jaso nituen bezalaxe azalduz.

1

Etnografiatzeko Egutegia Donostiako Kaialdean, 13. Zenbakia: 1984.02.11.6. Bazkalostea

Nire ikasle ohia den Azazeta Zubiaurre Faustino (2) bidez iritxi naiz Otxotorena Bittorirengana. Bazkalostea. Ama eta alaba ezkongabea, biak daude etxean. Kaia aldera begira dagoen egongelan sartu gaituzte. Bertan laurok eserita, elkarrizketan aritu gara. Alabak kafesnea ta atera dizkigu.

Hiztuna da Bittori. Elkarrizketarakoan batipat Faustinoarekin aritzen da. Bizi bizia da hitzegiterakoan. Gorputzeko mugimenduak egiterakoan ere, berdin.

Jertxe puntuzko moratu bat darama soinean. Blusa zuri bat. Gona beltza. Galtzerdi luze gardenak. Oinetakotzat zapatilak, beltzak baita ere. Mototxadauka, oso txukun eta eroki orraztuta. Benetan emakume presentagarria!

2007 DONOSTIAN
1984.08.06.1
SB 38, 4., 2
Liburutegian
(Buruz gogoratzuz)

2

Elkarrizketa Grabatua Eta Hitzaldatua OTXOTORENA Bittorirekin Eta Bere Alabarekin: 1984.02.11.6. Bazkalostea

Elkarrizketa grabatua izan zen, lehenik. Gero, hitzaldatua.

Elkarrizketaren zehar agertzen diren kontzeptu nagusien berri ematen da beraren ezkerreko aldean agertzen diren bi zutabeetan, zeinen izenburuak honela dira «GEG» eta «E». Barandiaran Joxemiel antropologoak 1983-an bere *Obras Completas*-etako 21. bolumena argitaratzen zuen, non aurkitzen da bere «Guía para una encuesta etnográfica» lehen aldiz euskaratua neronek izenburu honekin «Galdeketa etnografiko batetarako gidaliburua», zein hitz laburtu hauen bidez adierazten dut oraingo idazlanean: G.E.G. Barandiaranek bere galdeketari gehigarri bat egin zion, eta honako izenburuarekin 1983-an argitaratu zuen «Apéndice a la encuesta 'Etniker'» (in *Euskaldunak - La raza vasca*, 4). Euskaratua daukat hori baita ere, baina argitaratu gabe, izenburu hau daukelarik «Eranskina», zein hitz laburtu honen bidez adierazten dut oraingo idazlanean: E.

GEG-ko zenbaki bakoitzeko idazlanean, eta zenbakiaren pare inguruan, horrekin adierazitako kontzeptua letra berezietan idatzia dago. Irakurleari topaketa lana errezteko egin dago hori. E-ko zenbakiarekin ez dut kontzepturik bereiztu.

Zenbait unetan, Barandiaranen galdeketetako zenbakien ordean kontzeptua bera idatzirik agertzen da zutabeetan. Horrek esan nahi du delako kontzeptua ez datorrela mugatua Barandiaranen galdeketetan. Honekin ederki ohartzen gara bi gauza hauetaz: 1.a, Barandiaranen galdeketak helburutzat zuen euskal pertsonartea edo gizartea lehendik gure egunetara aldatu egin dela zenbait puntutan, eta orain galdeketa horiek moldatu egin behar direla puntu horietara; 2.a, Barandiaranen sasoiko antropologoengan ematen ez zen zenbait ikuspegi gaurkoengan ematen dela (eta alderantziz, hots: gaurkoengan ez dira ematen ordukoengan ematen ziren beste batzu). Beraz, bi modutako aldaketak kontuan hartzea behartua gaude garaian garaiko antropologoak. Horixe da nire helburuetariko beste bat idazlan honetan.

Honenbestez, elkarrizketa grabatua hitzaldatua eskaintzen dut ondoren.

(2) Psikologiako 3. ikasturtean dago aurtan, 1983-84.

Elkarrizketako hitzunen deitura eta izenen laburpenak:

AB,jm.— = APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin (galdegile)
 OE,b.— = OTXOTORENA ERRAZKIN, Bittori
 AZ,f.— = AZAZETA ZUBIAURRE, Faustino
 A.— = (OE.b-ren) Alaba

GEG

E

AB,jm.—Larunbata, arratsaldeko laurak eta laurdenetan gure emakumezko arrantzale elkarrizketatuarekin. Donostian, Alde Zaharrean. Nahi zunean, e, hasi zintezke. Bittori esan dezu, ezta, zure izena



Otxotorena Errazkin, Bittori, elkarrizketarakoan bezala, Azazeta Zubiaurre, Faustini begira. Etxeko egongelan. 1984.03.05.1. bazkalostea. (AB,jm).

OE,b.—Bai

AB,jm.—Eta apilidua, nola duzu?

OE,b.—Otxotorena Errazkin

AB,jm.—Otxotorena Errazkin, hori da! Bueno ba, zu, e

OE,b.—Baña *hau*, *nun esan dezu?*

AB,jm.—Neretzako, neretzako

OE,b.—Zergatikan

ABjm.—(Denak farrez) Ez irrati da ez ezer da. Lasai, neretzako. Honek, e, Faustinok badaki eta

OE,b.—E, zergatikan jatortasunian, e, nere hizketa gutxi gorabehera tankera eman diozu bañan nahi det esan bestela enaiz behiñere gertatu ta enuke nahi farre, iñon farregarri izatia (farrez)

AB,jm.—Ez ez, neuk pe enuke nahi holakorik, ezta, nere bidez zu, e, iñoren barregai izaterik, lasai!

Halako batian nunbaiten atera ta: «Bittorik holakuak esan omen ditu.» (denak farrez)

OE,b.—Hori ba Jeesus! Larrua ateako... (farrez)

AB,jm.—Ederki, ederk!

OE,b.—Ez, ez! Ba, nere izatia nahiko penosua da, estee gure ama oso gaztei geatu zan alargun, da zazpi giñan, gero beste bi hiltzian, da bost,

Zabalpena

18
19

GEG	E	
		bost bizitu gea bastante urtetan, oaindikan bi bizi dia. Bat laroeitasei urte- kua ta gero ni azkenekoa, esan dizuten bezela, hogeitamairu, ni hirurogei- tamairu urte kunplitu
		AB,jm.—Hori da
Neskametza	10	OE,b.— <i>Zerbitzea</i> etorri nitzan hamasei urtekin
I.1		AB,jm.— <i>Hernaniarra</i> esan dezu zarela
		OE,b.—Bai, bai!
		AB,jm.—Hernaniñ zein tokitakoa?
VII.28	Seme	OE,b.—E, Hernanin, e, <i>aiuntamentuan</i> , atzeko aldian. Oandikan, e, gure
VI.19	Aita	etxia esateyo..., nere aita zan... eta zeukan <i>tailerra</i> eta gure amak <i>seme</i>
I.130	18	<i>zaharrena</i> este bere ustietan <i>aiten</i> ofiziyua ingo zulekuan, ba abantatu,
VI.22	19	hasi ... hasi, almazena bere erreminta ta guzti ta, gure mutilai eman ziyon
I.10		<i>burnieskola</i> , hola, da kondiziyo bi ipini... baiña etzuen nahi, ta iten bazeki-
I.26		ten zergatikan beatzi urteekin este danak lanea joan, anai gabe geatu giñan.
		<i>Danak lanea</i> joan eta geatu giñan beste bost esan dizuten bezela. Eta danak
		lanea joatentzien da eltzekia egosteko eskola ez nuen laga; ezin nitzala
		joan eta nik eltzetatik in naez. Eta etxe zaharra, <i>balkoi</i> zaharra zan eta
Errenta		alderdi batea behin ezgiñun bate eiñ. Bañan eun hartan gertatu zan arropoz
		betia eotia balkoya. Okurrittu zait alfonbra astintzea, ertz harta joatia, ta
		balkoitik behera erori, eta Jeesus! Pagatzen genduen <i>errenta</i> bost peseta... gogoratzen naiz!
		AB,jm.—Zenbat urte zeuzkazun zuk ordun?
Alokaria		OE,b.—Orduan? Orduan izango nittun beatzi, eta bost peseta pagatzen
		gendun, eta nausiya etorri ta Jeesus! Ze ba, alegia <i>erori einitzala ta hil-</i>
		<i>tzeko</i> ..., da, handik, hemen, hemen daukat zikatriza, ta hementxen ta esku-
		muturran hortxe, besteik ez nuen ein
		AB,jm.—Lenengo pisutik?
		OE,b.—Lenengo bizitzatik, bai!
		AB,jm.—Lenengo bizitzatik!
I.26		OE,b.—Eta este nunbait, Jesus!, ezintzuela ta... Eta nee anayak esan-
		tziyon: «Beida! Nik, materiala zuk ekartzen badezu, <i>balkoya</i> nik jarriko det,
		nik berrituko det dana». Eta gezurra diruizu ofiziyokua izanez eta nola, ze
		<i>balkoi</i> egin zuen! Aste betian egin zuen
	Anaiak	AB,jm.— <i>Anaiak</i>
Oroipenak		OE,b.—Bai! Eta hala gehiyo ez genun jakin beste ... Bañan txikiya izan
		arren gauz hoiek <i>goguan</i> geatu zaizkidan
		AB,jm.—Ta ze kale zan hori, Hernanin
VII.28		OE,b.— <i>Aiuntamentuan</i> atzeko aldian
		AB,jm.—Izenik gogoratzen duzu?
		OE,b.—... <i>número catorce entresuelo</i> (norbait farrez)
		AB,jm.—Konpleto dana
		OE,b.—Konpleto
	Aita	AB,jm.— <i>Aita</i> esan dezu hil egin zitzaizula
		OE,b.—... bai ez nuen ezautu
		AB,jm.—Eta nola hil zan, zein gaixotasunez edo?
II.47		OE,b.—Esto tentsiyuakin, nahiko, bueno orduan esatentzan <i>perlesiya</i> ;
		garai haietan esaten zan gaitz horri perlesiya jo zuela. Gero nola esaten.
		Oain tentsiyo baten atakiakin ezta? Tentsiyon atakiakin esaten da oain.
		Ta bastante denboan eondu zala bastante zera, baiña azkenian hil eintzala.
		Enun ezautu. Eta erremíenta eta tailerra denboa aaskuan ezautu, nik ezautu
		nuen

GEG

E



Otxotorena Errazkin, Bittori
eta Azazeta Zubiaurre,
Faustino
elkarrizketarakoan bezala.
Ni, Bittoriren parean
egon nintzen eserita.
Etxeko egongelan.
1984.03.05.1.
bazkalostea. (AB,jm).

AB,jm.—Ta nungoa zendun aita?

OE,b.—Aita berez, este naparra, nola zan... han, basa baso handi bat, han, e, bueno esaten zuten hangua zala, este izen goitiya Botto, baserriyak emantzion izen hori, Botto. Baiñan zian lau anai nik ezautuittut... gizon jatorrak ... baño fiño zien, zeatikan osabak denboa askoan oso zaharrak ein dia, oso zaharrak, eta gure aita gazteik hil zan, berrogeita urtiekin, ez takit zenbat urtekin baiñan gazte ... uste det

Ama

AB,jm.—Eta *ama*?

OE,b.—Ama berroeta beatzikin

AB,jm.—Ta ze gaixotasun edo

II.47

OE,b.—*Gaixotasuna* eztakit, ba, hori ezin dizut esan, gaixotasuna, zergaitikan gabetik goizea zan, da geatu giñan bost. Baiñan, Jesus!, laguntzen niyon nik! Txikiyena nitzan da *de intérprete* ta dana ein biar izaten nun. Eskola joaten giñan, e, *Escuela Biteri* eta joaten giñan ba, nik euskueraz bakarrik ...kigun da hor erderaz erakusten ziguten

6

VIII.11

AB,jm.—*Biteri* eskuela

OE,b.—Eskola ederra da hori... oandikan beidatu eiteyot han azaltzen naizenean. Eta este, oso etxe aberatsetan amak eitentzun lanak. Interina esaten dan bezela. Lanak itte, orduan lanak ittea esaten zan. O, este etortzen zan, e, bila bat goize guzti. Oan *jubilatuei* erregalatua da, donatua, bueno *donada o*

Erretiratuak

AB,jm.—Bai! Eskeiñia edo, bai!

VII.28

OE,b.—Bueno haiantzako *herriyai* utziya

GEG

E

Etxekoandrea

AB,jm.—Hori da

OE,b.—Eta hara joaten zan eta etortzen zan *etxekoandria*. Zan inglesa berez, eta erderaz zekien gutxi! Baña amak erderaz batez! Ateazu kontua ni nitzan txikiyakin harrek hitz eitten zittun hitz bakarrak nere amai euskeraz esaten, Tankera emateiozu?

AB,jm.—Gutxigorabehera

OE,b.—Ba, «esan egiyon oandikan ezetz! Hemendik hamabost egunea joango naizela», esateniyon nik. Dukesa o zan. Da bea etortzen zan, bea etortzen zan etxea. «Ay! señora Ascensión, a, será usted pobre pero en su suelo, en su suelo se pueden comer sopas». Hori etzait aztutzen behiñe, eta hala: «Bueno! Cuento con usted. Yo no quiero nadie más. Usted me prepara la casa». —«Pa cuándo?». Da kalkulatzun zun hamabost eun o hamar eun o ... Etxe guztitiya garbitu behar ziyon. Zenbatian geatzen zian da akabo! Ia iluntzeako, etzan uda guzin inontzako, etzan! Oseake egune-roako izaten zan, geo hartaz. Eta ondo pagatuko ziyuten, zeatikan danak uzten zitun; eta ni hola kuadratura nitzan, zergaitikan han sobratzen zian ogi goxu hoiek, nola... ogi goxuak baiñan barrenen fruta dutenak. Eztakit nola, patxak eta izaten dia. Haietakoak nik zenbat jan ditut! Amak ekartzen zitun ta nik jaten nittun! Askotan esaten zuten... segidan jaten nun. Nik ez nun konprenditzen baiña geroa bai!, geroa konprendittu!

Ama

AB,jm.—Eta *ama* nungoa zan berez?

I.1

OE,b.—*Hernaniko* basarri batekua, este Añarretik. Oandikan bai, ba... zeatikan este anaia geatu zan geo anaia be umeekin

VIII.12

AB,jm.—*Eskolara* zenbat urtekin hasi ziñen joaten?

Ahizpa

OE,b.—Hori eztakit! Oain, geatu beatzi urtekin. Juten, noiz joaten nitzan, nere *ahizpak* esaten zun oso oso txikiya nitzala zergaitikan negarrez has-tenitzanian bea musuka espainai koska... esaten... Oain bizi dan, oaindikan bizi dan horrek, e! Oain nik noiz hasi nitzan, eztakit! Ondikan hango la-gunak, e, ezautzen dittut

AB,jm.—Eskolako lagunak

VIII.14

Sagardotegia

OE,b.—*Eskolako lagunak*! Bat da... Rekondotarra. Osa famatua izandu zien. Izan zituzten sagardotegiak, zien pelotayak eta neska o soltera geatu zan eta este zapata eta oiñetako denda dauka. Baitu horrek, horrek ni bai-ñan. Hori lehenbizi zan beti eskolan, ni bigarren, da oso lagunak giñan. Baiñan ni baño zerbait zartxuo zan hori. Behiñipin itxura ni baño zarraua...

AB,jm.—Ta adiñ ezberdiñak eduki ta klase berdiñean ibiltzen ziñeten

OE,b.—Bai, bai, bai! Han txikiyak aurreko aldian bankuetan da gu ... giñan. Jesus ene!, gu elegantiak giñan, hura gañea lehenbizi ta bigarrena ... kontuak, da baña oso eskola ederrak, e! Ta ginitun este maistra bat oso zaharra *doña Carmen*, eta gero genun gaztia *señorita Carmen*, eta geo horrek izandu zun okertasun bat eta hua Ameriketa joan zan eta alkatian alaba *don, señorita Presentación* Miner, ta zan monjak, eta izandu dia onak, baña etzait holako pertsonak, hobiorikpe, eta fameli guzia izandu zan oso, aita zan alkatia ta fameli ... zien oso jakintsuak eta pertsona onak, per-tsona, pertsona esaten dan bezela, jatorra!

VIII.15

AB,jm.—Eskolan zer egiten zenuten?

OE,b.—Zer iten genun?

AB,jm.—Hau da eskolako egun bat, e, gogoratzen duzun

VIII.13

OE,b.—Gauzasko ez bañan, eta gañea esango dizut, e, este *historiya* eta *jeografia* ezitzaidan gustatzen, eta neonek gezurra esan eta anayen-tzako ... kontu in behar niyola ta kikarro eitenun. Horreatikan jeografia oan ikasi det, e, oan dala urte batzuek tankera emanaz, da letzen, da. Gaur

GEG

E



Otxotorena Errazkin, Bittori
elkarriketarakoan bezala.
Etxeko egongelan.
1984.03.05.1.
bazkalostea. (AB,jm).

9

esaten da ba hau ze parajetan do ta, mapa beidatu ta hola ikasi eta ez pen-
tsatu eta ... Bai bañan hori, hori ondo ikasi genun, hori ondo ikasi genun!
Bañan nei gustatzen zitzaidana, aber konprenditzen dezun ... Eztakit eta
gañea etzait sartzen. Nere fedia badet, bañan, sinismena ere bai, bañan
hortikan aurea nik pertsonai beidatzeiot eta horik ere gu bezela aldre-
bes ... zuzen in bihar

AB,jm.—Danetikoak

OE,b.—Bai! Ba da este Frantziskano ezauna, oain... arte beti eskumiñak
baltzen zittuan, bai Xabier izena du... Etzan besteik hemen sortu zanian
ete gerran ondorioren, ba nunbait Eskual Herrikua maitia izan ta zerbait
Eskualerriko gauza defenditzen zitun da pertsegitua izandu zan. Hemen
este nolada ... bañan ezkutuan, e, eta nik jakin nuenian *antxoak* igual bial-
tzen nion, erozer gauza... ze gauza, *pero* nik esaten nun bihar goizean hori?
... Hor zeon denboran *Don Santiagokin*, pentsa *noizko gauzak* tian, este an-
txoak... Bera hamen egon zan, San Pedron? Bai, San Pedron! Oso gutxik
geniakigun (?) ta hola, heuren bizi izatia hortxen ... Matisa Zufiaurre, *en*
la casa Zufiaurre, e, hola ... garai hartan

AB,jm.—*Eskolako oporrak* eta edo bakazioak noiz, e, izaten ziñuzten?

OE,b.—Ba, ba, ba nik neonek nee aldetik, eltzia egosiya nuela anaya
señorientzako, ta bestela oporketak enaiz gogoratzen. Da etzan udaran
izango, zan zeatikan basarrira joaten nitzan da. Baldin bazan hori izango
zan. Bañan gogoratu enaiz iten. Oseake ni basarrira joan da bi ta hiru hila-
bete pasatzen nittun

IV.6

Oroipenak

Oporrak
(Ikastola-ko)

6

GEG	E	
VIII.16		A.—Aitu ama! Baña <i>frantzez</i> pixkat ikasi zendun. Zuk dakizuna hitzak eta dakizkizunak, orduan ikasiyak dituzu
	Ahizpa	OE,b.—Ez! Geroa!, geroa!, nere <i>ahizpa</i> ezkondu zanean
		AB,jm.—Frantzeses, baiña nun ikasita hori?
I.1		OE,b.—Nere ahizpa ezkondu zanian. Este gauza gutxi nezekiyela eta hobetosio zeartzeagatikan <i>Hernanin</i> zon <i>kolejiyua</i> . Oan Banko <i>Bilbao</i> dao. Sinkonjan. Sinkonia ezautzen al dezu? <i>Cinco, cinco</i> nea: este bos bire da mutur bat, kalian, bi kale bakarri ditu, ta oain ... Este hoiien muturra bukatzen dianian dago halako <i>redondel</i> bat eta hor zegon, este, konbentu bat monja frantzesena eta horrea bialdu zian nere ahizpak
VIII.1		AZ,f.—Zeu zenbat urtekin gutxigorabehera?
VIII.12		OE,b.—Ba izango nittun nik hor <i>hamar hamabi urte</i> , holakotxe bat. Eta han! Este erde oi nahi ta naez frantzeses ein behar zendun, eta sartu berriya nola jakingo zendun ba? Eta ... <i>anillo</i> bat jartzen ziguten zintzilik, hori da erderaz etzekiguna, ta harrapatzen nuenian beste bat erderaz hitzeitten hari jarri ta... <i>libre</i> ... kastigo bat bezela, obligaziyo bat ez deskuidatzeko erderaz hitz eitten. Eta Sinkone hortan oain Banko <i>Bilbao</i> dao. Oain dago biria estaziyoa, trenen estaziyoa eta bestia dago Sinkonea esaten zaio galetera ta <i>Anziola, el barrio de Anziola</i> , da hor bi bire daude. Oain oain zea esaten diyotena beste bat ein zuten, e, izena Anziola hau hola eta Latxunbe, e, labadero bat intzuten da Latxunbe jarri zieten izena eta hortikan ibiltzen da autobusa. Hirugarren biria hori da, eta esan dizuten bezela hola eskubita, e, dago <i>Orbegozonea</i> eta Sinkonea esatentziyoten eta hortikan Orbegozonea eta este trenbiria ta pasa ta Karabelea. Hoiak danak bai bakizkigu!
		AB,jm.—Eta komentu horretan, zenbat denboran egon ziñen?
		OE,b.—Gutxi!, oso gutxi! Eztakit ze gertatu zan; zerbait krisi gertatu zan, itxi eintzuten da monjak jun eintziyan. Da hor mendiya bezela, <i>kolejiyua</i> ta gero mendi bat bezela zuten goitik peraño... osea malda eitten da, ta Ama birjiña Lurdeskua zela, zen, e, estee... eta <i>errosariyua</i> errezatzea ta jardiñea joaten giñan. Oso, han monjak dana ... zuten, berentzako fruta ta beste berdura, beak itten zuten, bañan denbora...
Burni industria		AB,jm.—Eta zenbat monja eta zenbat zu bezela, neska, ziñeten?
		OE,b.—Ba <i>aberatsen tartian</i> sartu ninduten orduan ni. <i>Hernaniko</i> jende ontsuena joaten zan horrea, eta nik alegiya zera eznegola bihar bezela preparatua eta beste zerbait gehixio ikasi bihar nuela ta orduan bialdu ziaten hara. Este <i>kapule</i> esaten zitazion buruko zapi zuri bat eta uniformiak, elegante bialdu ziaten hara
	9	AZ,f.—Baiña han ze iten zendun, bakarrik frantzesia ikasi edo?
Arrosario		OE,b.—Eskolak ematentziguten, edukasiyua, bañan frantzezez, e, ziharo erakusten, frantzezez, bañan denbora gutxiago. Medikuan alabak eta hango, herriko ontsuenak, <i>fabrikantien alabak</i> eta horra joatentzien
VIII.1		AB,jm.—Han egunez egon eta gauerako etxera
I.1		OE,b.—Bazkaitarako... zuten gosaya ta merienda ematentziguten, bañan frantzez ikasi biharra, Jesus! Niri zenbat kostatzen zitzaidan euskeraz, erderaz eta gero frantzesia, Jesus!, ...
Jantziak (Ikastola-)	6	AB,jm.—Ta ... edo delako hori nolakoa zen?
		OE,b.—Zera ba <i>zinta</i> bat eta <i>anilo</i> bat, holako anilo bat
		AB,jm.—Doratua?
VIII.1		OE,b.—Doratua, eta hua, hua ikusten zizutenian ba kastigua dauka. Eta beak itten zuten alegiña zuekin ez hitzeitteko zergatikan deskuidatzen bal-
VIII.19		

GEG

E

din bazian nik erdipurdiya nekiyen, deskuidatzen baldin bazian neri alas-teatikan erderaz itia ...

AB,jm.—Ze koloretako zinta zen?

OE,b.—Zinta zuriya

AB,jm.—Eta uniforme hori?

OE,b.—Urdiña, urdinzuriya

AB,jm.—Ederki! Eta Hernanitik orduan, e, lehen hasera haseran hasi zea esaten, zenbat urtekin

I.1

10

Galeta-fabrika

OE,b.—Ba hamaseikin etorri nitzan *Donostira*, serbitzea. Galeteran lanik enun in. *Galetera* este, e, *barrio de Anziola* zan galetera bat

AZ,f.—Hernanin bertan

I.1

OE,b.—*Hernanin* bertan! Ta hara joantzen lanea eta *Mela* itxi eintzan, *tierra*... nun gauza handirik irabazteko moduan. Zeak jaten nitun, Jesus!, onenetikan gañea eta kiebra eintzun. Da orduan nik ba ia ikusten nuen danak been etxian zaudezela ta ni estorbo bat bezela iruditzen zitzaidan da ne nee modura zerbait irabazi behar nuela ta serbitzea *Lukasen etxea*..., bai este

Neskametxea



Otxotorena Errazkin, Bittori eta Azaeta Zubiaurre, Faustino elkarrizketarakoan bezala. Ni, Bittoriren parean egon nintzen eserita, etxeko egongelan. 1984.03.05.1. bazkalostea. (AB,jm).

I.1

VII.28

A.—*San Jeronimo*

II.201

I.1

OE,b.—*San Jeronimo*, bai! Oain bai *aiuntamentuko* zein de, ba horrea etorri nitzan serbitzea eta, hain hain ondo hartu ninduten, alaba bat etzan hobeto biziko etxe hortan. Oso oso ondo, oso ondo! Ta hortikan nola *dantza* joaten giñen, joaten, nola dantzan eiten genun *Hernanin* da nee gizona zana, arrantzaliak hemendikan hara joatentzian, aixkire eiñ giñan eta *Donostia* etortzen zanian *Hernanira* joaten giñan (farrez) alkartuta berriz ere dantza hara, eta gero ezkondu giñan hogeï urtekin, ta gero hemen lanian hasi nitzan...

Galeta-fabrika

AB,jm.—*Galeta* horren izena gogoratze al dezu?

GEG

E

OE,b.—*Cantabria y Royal*

AB,jm.—Zenbat lagunak lan egiten?

OE,b.—Dexente! Gizasemiak, e, gizasemiak gutxiyo zian, baiñan giza-semiak izango zian hogetamar bat hola, eta beraiek, iten zutenak haiek zien. Oan guk enpaketatu iten genun, enpaketatu. Mahayan bota galetak eta bildu banaka banaka eta bestiak ... harriei xortak jarri da harrapatu itten zittun. Eta emakumiak izango giñan ba, hirurogeita nee mahayan... Jesus!... (farrez)

A.—Ama!, libre zenuten joatia, ezta?

16

OE,b.—A, bai, bai!... eta rekortiak *a dos cuarenta el kilo*, euneko freskuak! Este nahi bagendun etxeako ekar, eramaten genitun, zea birian

AZ,f.—*Dos cuarenta* ez da alda asko?

OE,b.—Bai!, bi pezta ta lau txakur handi!

AZ,f.—Gaexti, gaexti ez al da hori?

OE,b.—Ez! Ezta gaexti! Honenbesteko paketia, zea *dos cuarenta*? Ez, ez, ezta gaesti! Pakete handiya izaten zan da. Este birian, este *apaiz bat bizi* zan ta harren *etxeakoandriak*, o, nola esaten zaiote

Apezetxea
Etxekoandrea

AZ,f.—Serora, serora

OE,b.—Nola?

AZ,f.—Serora

Neskamea

OE,b.—Ez, serorak ez! Este apaizak izaten zuten gehienak *neskatxa* bat. Oso andre polita zan, da beti «aizu, aiku meseres, hau zai nao, ekarriko nazu gaur arraiñikan?». Arraiñak ekartzen nitun. Jesus!, makiñabat bai!

10

AB,jm.—Danok, e, hernaniarrak ziñeten, lantegi horretakook?

Etorkina

OE,b.—Ez! Ner, bueno gehiyenak pai, gehiyenak pai. *Erdaldun* bat ba-zeon gure mahayan. Lau lagun izaten giñan mahai bakoitzian. Eta oso fiña zen, beste nola zen hura, enaz gogoratuko bañan erdaldun erdaldun erdalduna. Aita igeltserua zuen eta beare erdaldun, baña oso fiña, oso ... fiña zien! Ta geo *Tolosa* joantzien lana hobiaua bilatu ta papelera joan zirala. Bueno, krisis esan dizut, krisis ... itxi ein zuten, ta ni serbitzea ta hua zea Tolosa. Geo urtiak pasata, ni ezautu nindun da: «Oi!, zu holako zea-ta —Bai! —Zu holako-ta —Bai!». Ta hala hitz in genun ta oso ondo zonela, papelera ...

Soldata
Soldata (Galeta
fabrikako-)

16

AB,jm.—Ta ze *soldata* irabazten zenuten?

10

OE,b.—*Dos cincuenta, dos cincuenta* egunian!

AB,jm.—Zenbat ordu lan?

OE,b.—Zortzi!

AB,jm.—Sei egunetan, ezta?

OE,b.—Bai!

Neskametxea

AB,jm.—Honea etorri ziñenean, orduan kale hortara, San Jeronimo kaleran lan egitera, zenbat denboran egon ziñen hor lanean?

OE,b.—Nun?

AB,jm.—...

(-denbora)

OE,b.—A hor? *Lau urte!*

AB,jm.—Lau urte

OE,b.—Ta hortik ia bosgarrena

(-lana)

AB,jm.—Bai! Ta zure *lana* zer zan, hor? Etxeko

OE,b.—Garbitasuna egin, enkarguak egin. Goizetan esnia ta ogiya ta eaman etxia, eta geo etxeko lanak

GEG

E

(-jai)

AB,jm.—Ta jaiak eta nola izaten ziñuzten?

OE,b.—*Jai?*, lauretan atea ta zortziretan etxian

AB,jm.—Egunero?

OE,b.—E... egunero ez! Egunero ikusten banun urjentzia ta... plaza Kostituziyoaren mutilak eoten, bañan besteik ez, zeatikan, e, ilunabarrean goiz etortzentzien hor motorietan ta ni horrea etortzen nitzan ba pisoko zea hoiek... garbitzea, kristalak garbitzea ta hola etortzen nitzan, eta ikusten banuen da igartzen zioten berihala ta, bueno ordu, laurden bat, e, besteik ez, hala. Bañan oso oso *jende jatorra*! Hoiek zian bi ahizpa, seme batekin eta bat ezkondua eta bestia neska zaharra. Geo etorri zan *Kuban* hoetamar urte eintzitula ta anai bat. Lau laun beak, lau laun, da ni bost

(-familia)

Kuba

I.1

AB,jm.—Eta hemen, e, garai hartan *Parte Zaharrean*, zu bezela lanean beste asko al zien?

Neskametza

OE,b.—Bai, bai! *Neskame*! Jesus!

AB,jm.—Asko!



Otxotorena Errazkin, Bittori elkarriketarakoan bezala, Azazeta Faustinori begira. Etxeko egongelan. 1984.03.05.1. bazkalostea. (AB,jm).

Adina

(Ezkontza-)

1

OE,b.—Lanik errexena orduan iruitzen zitzaigun gañea. Etxe jator bat topatu ezkeo gauzik jatorrena! Lenengo lan iteko oan *aprendiz* joaten dian bezelaxe orduan neskaxa. Neskaxa esatentzan, *chica de servicio*, erderaz

AB,jm.—Eta *ezkondu* hoge urtekin esan dezu

OE,b.—Hoge urtekin. Gaur dia

AB,jm.—Zure

OE,b.—Gaiñea

AB,jm.—Gaurko egunez

OE,b.—*Gaurko egunez*

AZ,f.—Oantxe!

OE,b.—Ze kasualidadia, e!

AB,jm.—Urte askotako berriz ere

OE,b.—Bai ...

AB,jm.—... Hori kontatzeko urte askotan izan zaitezela

OE,b.—Eztakinik, buruan ez seguru ...

AZ,f.—Ezkerrak, bestela (farrez denak)

AB,jm.—Eta zure senarraren izena?

OE,b.—Anjel Gastañeta

AB,jm.—Ta bigarrena?

1, 18

Senarra

Urtemuga

(Ezkontza-)

GEG	E	
		OE,b.—Etxezarreta
		AB,jm.—Ta nungoa zan bera ...
		OE,b.—Etxezarreta, Donostikoa
		AB,jm.—Hori amaren aldetik, eta bere aita?
	Aitagiarreba	OE,b.—Bere aitare, bai! Bere aita Joxe Jabier
		AB,jm.—Donostiarra baita ere
		OE,b.—Donostiarra bai. Oin ez ...
Getaria	Amagiarreba	A.— <i>Amona</i> berez <i>Getaya</i>
		OE,b.—Amona, amona getayarra
		AB,jm.—Etxezarreta ...
		A.—Bai Etxezarreta, getayarra, txikitatik etorria Donostira, amona. Amona ez al da donostiarra
		OE,b.—Ez! Aita
		A.—Gure aita?
		OE,b.—Gure aita donostiarra
		A.—Ta bere aita ere bai, bañon bere ama
2. Karlistada		OE,b.—Ama Getaitikan <i>Karlisten gerra</i> denboran bizkarrian ekari omentzuten
		AB,jm.—Iheska?
IV.3		OE,b.—Aitonak, bai! Eta bestiak, eta beste fameliya txalupan, <i>arraunian</i> , arraunak ... ta famelikoak Getayan gelditu zien
		AB,jm.—Etxezarretarrak
		A.—Bai
	Senarra	AB,jm.—Eta zure <i>senarra</i> arrantzan, e, noiztik hasi zan, berez familia-koak arrantzale ziren?
IV.1		OE,b.— <i>Bapore txiki</i> bat, bapore bat, txiki bat zuen aitona Kalbeton, eta txikiyak zian oango aldian, zera, ... zan hori azur, sei sortzi amar zaldi zitun makinak, kaldera, e, iketz, ikezduna. Eta <i>aitakin</i> , aita laguntzea. Eta este zera, anai zaharrena ia zeakua zan, nola esango litzake, Joxe Jabier. Han biharrian ibiltzen zan nee gizona, hiru seme zian eta Jabier horrek haundiyagua nahi zuela eta ia han bat, e, handitu zanean bapora ... eta zuen izena Anakolikoa. Eta <i>Kalbetonen</i> aita laguntzen ibiltzen zan nere gizona, ta gero Kalbeton hori ba, xarra zan ta gero pasa zan zea, Joxe hoi Anakolikoa
I.1	Familia (Aitagiarreba-)	AB,jm.—Eta heurak nun bizi ziran, Kalbeton kalean beharbada? Edo Kalbeton hori nundik zeukaten?
IV.1		OE,b.—Eztakit, nik hola ezautu nun da hori ezin dizut hor zeatu, bañan <i>enbarkaziyo txikiyak</i> zian, zergatikan Miel Batizte zea zuena, bere anayak zuenare tankera berekua zen berrogei zaldikua esaten zuten. Gauza hoieneztakit askoik zeatikan ... ta gero beriala deseintzien. Ta ia joantzien <i>enbarkaziyuak haunditzen</i> , haunditzen
IV.10		AB,jm.—Eta zu ezkondu aurretik ala ezkondu eta gero hasi ziñen <i>arrantza bizimoduan</i> ?
10		OE,b.—Ez! Ezkondu eta bigarren egunerako sartu ninduten lanian <i>Zubiaurren</i>
		AB,jm.—Bai ta zer da hori Zubiaurrena hori?
		OE,b.—Zubiaurre apelidua. Hoiak zian orduan euskeraz esatentzan <i>mar-txante</i> , zera arraña erosi, gero <i>esportadores</i> esatentzan. Este arraya erosi eta kanpora bialdu o plazeta edo klienteri hola, eta arraya erosi, gazitu eta gero kajetan jarri. Tiña haundi batzuek eotentzian

GEG

E

AZ,f.—Bai, kon ... dia

OE,b.—Bai! Tiñak esaten gendun. Guk esaten gendun beti kupel erdiya, gure aita nola zan tonelerua, tonaliria, kupela o kupel erdiya. Hemen esatetzan tiña. Urgaziya, este ura ta gatzakin gazitu arraya, tenple bat harrapatu eta kajetan gorde; batzueri gatza botatzen zitzaion gehixio ta beste batzuri ez. Gero etorri zan jelakin lan iteko modua ta hasi giñan Zaragoza, eta Jesus!, bakar, lelenguak hemen giñan jelakin bialdu giñuna Zaragoza eta etxeoandria zoratua zeon oso ondo saltzentzala ta handik eta hemendik eta lan asko, lan asko! Gau osoak ere pasa izan det. Daukat nik hor lana eiñe, zeatikan gabian ardora izatentzan; *ardora* ateatzen zian baporiak, ardora esaten zitzaioten, esaten zitzaion gabian jun itxasoa eta arrayan zerak koloriak o masak itentzun ardora, ardora, esto, erderaz esango balitzake bezela *una cosa florescente*, e?, ardora ta hoi ardora ikusi, saria bota ta arraya harrapatu eta noiznahi etortzen zien. Aste bat badaukat nik ordu bete bakarrik lo einda ...

AB,jm.—Zenbat urtekin gutxi gorabehera?

OE,b.—Nik hor ein nitun hamaika urte. *Hogeikin* ia jarri nitzan lanian. Pentsa hogeitamar urte, hogeitamar urte izango nitun. Eta *jornala* emantzien mila erriel. Esantzian: «Kontentu izango zea, e, diru asko damazu». Hain nekatua ta hain baldartua negon ta tenple txarra, ta esan niyon «Txonle asko iruditze al za? —Ezalda diru asko ba? —Hoi baño gehio gaztatu det nik elzekayak ezin jarri eta momentuko gauzak erosten zerbait jateko, ta hori ez ta diru asko. Ezteloik in, ordu bete bakarrik ein det aste guzian. Ze iruditzen zaio *etxeoandre*? —Jesus!, oso lotsagabia zaude gaur», esan-

IV.6

Adina (Arraintsaltzaile-)
Soldata (Arraintsaltzaile-)

16, 23

Etxeoandrea (Arraintsaltzailelekuko-)

Otxotorena Errazkin, Bittori
eta Azazeta Zubiaurre,
Faustino elkarrizketan
haren etxeaurrean.
1984.03.05.1.
bazkalostea. (AB,jm).



GEG

E

tzian ... bañan hori asko gogoatzen naiz! Pentsa zazu ze neki eukiko nuen etxea etorri ta silan exeri biharrian luze luze etzan nitzan lur gañian, ... ezin besuak eta ezintzea

AZ,f.—Ta zenbat denbora eintzendun lo gero?

OE,b.—Lo, utzi, utzi hainbeste! Baña nola deitzen zan, zergaitikan ni beti izan naiz lo haundikua, oyan sartu ta lo. Bañan, Jesus!, gezurretako munda! Geo urte hura izandu zan izugarriya, geo zan beste epoka bat lan askokua *el año cuarenta, gau ta egun*, gau ta egun, gauta egun ... igual bialtzentzan trenian hola zea kamioyan da ... Eta izandu giñen ... eta sendagilek etzian topatzen gaitzikan eta oserbaziyan ez lanik iteko ta oserbaziyan euki nindun. Lanik ein gabe jan da lo iten nuen berihala jarri nitzen

AZ,f.—Gaitz guztiak

OE,b.—Bai!, gaitz guziak joantzien. *Botakarrare*, botakarrare harrapatzen tzanian, hori ezautuko zendun?, ba hori ... antxoa bezela *sardina de pico* esaten zioten *Zaragozan*, *sardina de pico* eta igual igual zen antxoak bezela, ta lan asko ... Bañan usaia geatzen zan arropai!

A.—Bai jo!, hona etortzen zanian

OE,b.—Bueno anedota bat kontatukoizut. Egun batian berandu etorri *baforia* ta etzegola presik eta baña egon einbihartzala gazitu arte, eta jartzen da bañan gehiagokua ta guazen «El negro que tenía el alma blanca», *botatzen* zuten *Kursaletik*. *Ezta atzokua*, e!, Ta guazen, denbora justua deu, da, a, guazen, ixil ixilik guazen! Da sartu giñan ta usaya haundiya ateatzen zan arrayakin. Nik eztakit zertzuk sartu giñan da jendiak ... gero entreaktuan argiyak piztu zianian bakar bakarrikan arkitu nindun (farrez denak)

AZ,f.—Hori sistema ona dek, e, bakar bakarrik izteko egun batian!

OE,b.—Ba hori da *ebanjeliyua bezela*, egiya! «Baña hemen jendia baze gon, da handik eta hemendik da, aizan eske mantala zikiñakin etorri gaitun da». Bukatu zanian lasai lasai etorri giñan, jarri genun ta oyea.

AB,jm.—Zenbat lagun joan ziñeten zinera, zenbat lagun ziñeten joateko?

OE,b.—Beatzi, orduan beatzi izaten giñan

AB,jm.—Eta hemen, e, *Zubiaurre* horretan

OE,b.—Beatzi

AB,jm.—Beatzi

OE,b.—Beatzi

AB,jm.—Ta gizonezkorik ere

OE,b.—Bai! Hoyek lau zian, lau mutil

AB,jm.—Lau

OE,b.—Eta geroa, gero bueno zea, e, sardiña ere Frantzira bialtzentzan kaja txikitan, da Bartzelona. Goratze al zea zu?

AZ,f.—Ez, Ikusi nola jartzen ziren eta holako gauzak, bai!

OE,b.—Orduan bai!, orduan hogeitamar lagun da lan iten genun. Zeatikan hola kaja txiki batzuek, honek

AB,jm.—Kasetaren baño handixagoak?

OE,b.—Bai!, bai! Tankera honian, e?, este kontatuak jartzen genun sardiñak eta hola buru aldian botatzen geniyon zea gatza eta mutilak tapa batzuekin, puntarak in zea, puntapasakin lotu eta jarri bat lau kaja, lau kajatxo izatentzian ta kontatuta jartzen genitun dozenaka

AB,jm.—Laneko orduak zeintzuk izaten ziren?

OE,b.—Arraya zegonean! Eta erdiatzeko ordurik ez. Eta igande atsalde, ilunabarretan deitzen zigun oraindik tiñak hustutzeko. Hua zan!, hua zan!,

1940

IV.10

IV.6

Zaragoza

23

IV.1

Filma

I.1

Droipenak

Hizkuntza

IV.10

19

GEG

E

gizonen baño handiyo, tiñak betiak gatzetz! Gatza hondoa joaten da, bee zera iten dunean, bero gutxi iten duenean, zeatikan hura gazitu iten da, gatza botatzen diozun bezela ta geo arraya zea gazitu ta gatza berutz joatentzan. Geo tiñak garbitu ta lagun bakarrak haiek danak hustutzen, ... lan izugarria izatentzan! ... bañan beti lan berea

Langileak (Emakumezkoak-)

AB,jm.—Ederki, eta hemen, e, garai hartan, e, *emakumezkoak ze lanetan ibiltzen ziñeten eta zenbat edo?* Zu, esan dezu beatzi hor eta hemen kaian gehiago, emakumezkoak, e

IV.10

OE,b.—Ba asko zian. Orduan, orduan *erostunak esportadoriak* esaten-tzan; geroa izen hori jarri zen, eta asko zian. Eta bazian ba bakoitzak bi, hiru izaten zituztenak; eta emakumiai nola hemengo irabazia zan este, arraya ekartzen zutenian bakarrik ba emakumiak etxia utzi eta etortzen-tzian zerbait irabaztea ta arraya eamarentzan etxea. Eta ba asko zian, he-men zea esportadore bakoitzak bat o bi izaten zituzten, beste batzuek lau

A.—Ba hori geroa ama, pixkanaka pixkanaka gehitzen, geroa, bañan le-nengo lenengo Zubiaurrek bakarrik lan iten zun, ezta?

OE,b.—Eez! ...

A.—Zubiaurrekin batian zein?

OE,b.—A bai!, bai!, bai!, este

A.—Zubiaurrekin batian zein?

OE,b.—Ba asko! Seberiana horrek, e, zeñekin ibili zen, hemen

A.—A, Beltxa batekin, Beltxa o nola izena zuen, bai beltzen batekin

OE,b.—Bai, bai! Nik gutxiyena ezautu ditut, ni sarrerakuak gooratzten naizneak, hamabi o hamalau bat pai. Felisa ... Abelinak eta hoiek danak, danak bazuten zea bat. Gero, erostuntzat jartzen zituzten: «si hay pescau a tanto cómprame». Ta hola. Ta bentan este ... agertzen nola eoten giñan

Posgerra

A.—Gero, gero berrogeitabi berrogeitairuan ia hasi zan arraya ia, *pos-gerran?*

OE,b.—Gose handiya zegon, alderdi hoietan

AZ,f.—Nun saldu bazegon!

Gerra denbora

OE,b.—Bai! *Gerra denboran* ez etzegon nun salduik, bañon gero nun saldu bazegon, tan pixkanaka pixkanaka jendiare, osea zuk esan dezun be-zela, gehitzen joantzan, eta zea ugari ... zea aberastasun handiya sortu zan ...

Krisia

A.—Berrogeitabostetik aurrera, berrogeitabostetik aurea hirurogeitamar arte hola, gero ia *krisisa* hasi zan

OE,b.—Sesentaiotxon ia, ia

A.—Gero pixkanaka Frantzesak, e, ...

OE,b.—Berriz gutxitzen, gutxitzen joan da

IV.10

Zaragoza

AB,jm.—*Erostun* edo *esportadore* hauek nundik etortzen ziren, e, gehien-bat? Lehen *Zaragozakoak* aipatu dituzu

Barzelona

Valladolid

OE,b.—Bial, bialtzen genun lekua! Bañan toki, España guzira: *Barzelona*; este nola da?, *Valladolid* herri haundi hoietan, asko, asko bialtzentzan, ka-mioika ta

AB,jm.—Eta horretan ibiltzen zirenak batzuk hemengoak eta beste ba-tzuk kanpokoak izango ziren

Kanpokoak

OE,b.—*Kanpokoak* etorri ta gui erakutsi iten zer hoiien berri. Hemen etxeko andria zea famatuena ta handiyena hori zan Zubiaurre, bañan kan-potik etorri dianak erakutsi ziguten guri, zergatikan honea etorri ta jan da jan ibiltzea. Ta gañea ezautuituu esportadoriak, geo hasi zian zuriyakin ta denakin, eta kamioya o jelan kontua hasi zanian orduan asko, asko

GEG

E

Errioxa

A.—Asko guk ezautu ditugunak *Rioja* aldekuak

OE,b.—Bai!

A.—Gerra ondoren etorriyak eta herrira bialtzen, beren herrita, been herrita hasi zian, e, lau sei kajakin, ta gero gehitzen, gehitzen, gehitzen, bañon guk ezautu ditunak, e, *Rioja* aldekoak, asko!

OE,b.—Bai! Eta gañea han gosia eta honea etorri, hara bialdu, han saltzen jarri ta haiek haunditu, hemengoak e, bai! Hemen zeudenak, Jesus!

Pasaia

A.—Eta txuriyai jo ziyoten gero ta txuriña *Pasaian*

OE,b.—Bai! Pasaira joan da, hoiek asko!

A.—Nik uste berroei ... buelta da hori

OE,b.—Bai!, berroeita hirutikan aurea da hori. Oan, berriz, mermatzen. Geo, oan aspaldiko hamar urte hotan konjeladore goraberakin da

IV.10

A.—Hemengok, e, bazian ..., Egiguren, Suhillero, e, hasi ziñak, pixkanaka pixkanaka zure kontura

Erdaldunak

OE,b.—Bai!, bañan, bañan *erdaldunak* erakutsi digute

Arnedo

A.—Bai!, beak etorri zien da beak: «A mi cuñada y a mi hermano», ta sei kaja honi, beste lau bestiai, beak bee herrira hasi zian ... ta geo gehitzen, gehitzen, gehitzen, ba kamioika. *Arnedo*, *Bergara* ta hoiek danak

Bergara

OE,b.—*Trenian* bialtzentzan, gero *kamioika*, kamioyakin

AB,jm.—Orduan lenengo trenean bialtzen zian hoiek

OE,b.—Bai!, gazitua bialtzentzan.

AB,jm.—Ta gero kamioika

OE,b.—Gero jelakin. Jelakin etzeon gora bera hori. Trenan orde z kamioia, freskuo, gatzik gabe eta erreztasun haundiya

A.—Jo! Hemen biltzen zien kamioiak!

OE,b.—Jesus!

A.—Arraya sartzen zan, bueno!

Soldata (Arrain-
tsaltzaile-)

16

OE,b.—Gu geo, honea, arraya re honea sartzen zan benta hobia zuelako eta fabrikantiak eta etorri ta: «Bialduko al ziazuke?» ta hola!; modu horta lan asko, lan asko! Jornal eskaxakin, e; nahi det esan *jornala ez*, *komisiyo* eskas batekin, bañan ditxa zan arraya saltzia, noa bialdu eta jornalak ipintzea joatia. Hori zea

10

A.—Eta zenbat jende ... jaten zuen hemen!

OE,b.—Asko!, asko!, jende askoi jaten ematen!

IV.10

A.—*Arrantzaliak*, *bitartekoak*, e, *kamioikuak*

OE,b.—*Jela ekartzaliak* eta kargatzeko, *kamioika kargatzeko jendia*. Hori dana

Senarra

AB,jm.—Eta *senarra* arrantzaz, e, ibili zan zenbat denbora arte?

II.47

OE,b.—*Gaxotu* zan arte

AB,jm.—Zenbat urtekin gutxigora ba?

OE,b.—Beak esaten zun hamabi urtekin o hasi zala aitten gauzekin, eta gero gaxo jarri zanian, zenbat izandu zan

A.—Hirurogeikin

OE,b.—Hirurogei o hirurogei kunplitu baño leno, berrogetahemezortzi-kin o ia

A.—Hasi zan pixka bat zerakin, tenporada bat, e, bolara bat itxasoan, beste bolara bat yatiakin eta ia oso gazteik

IV.6

OE,b.—Bai hasi zan *atunetan*, *atunetan*. Atuna ja, o zea, joaten zienian

GEG

E

II.240

Soldata (Arrain-
tsaltzaille-)

IV.10

5
18

janariya atun asko jaten zuela ta etziyola onik iten da atuneta etzala joango ta hola hasi zan, ia gaxo hasi zanian, ..., ta hiruroeitazazpikin *hiltzen*

AB,jm.—Ta zu zerorrek, e


OE,b.—Este bea handiya ta gu lanian eta modu horta hasi zan, eta gañea nola esaten da, e, gañez eintzuen nee pazientziyak eta hasarratu nitzan horrekin ta hasi nitzan nee kontua. Ta iten gendun *komisiyua*, ta gañea nik diruik orduan ez nun bañan jende formala ta nola esaten da: «Beira lan eingo al ziazuke? —Bai!, baña nik ez det diruik, e, eta nahi baldinbezu nik zortzi euneko kreditua det eta nei arraya alatzan dan bezin pronto nei dirua!». Eta *jende ona* tokatu zait, ez naute zorretan utzi, ezta batek ere! Eta hola modu horta ba aurreatu, *pero* nola esango nuke, pixkat altxa

AB,jm.—Bai!

OE,b.—Eta hobeto bizitu, e, gero, e, ni ez naiz holako abila zeatikan, e, nik esan dizuten modura *eskolan* galdu enaiz in bañan honen laguntzak asko, hobeto, hobe, nei *semealabak*, bi alaba ta mutila ditut eta argiyak eta hoei laguntzeko asko ...

AB,jm.—Ta orduan zeure konturako lan hori nola izaten zan? Hori ez-paitut ondo ikusi, e, lan hori, e, zertan, e,

OE,b.—Haiek, porejenplo, ematen zizuten. Aitu!, behiñipeiñ esangoizut bat, bat esangoizut, *bermiotarra*. Este nola da izena? Da Garabilla. Etorri zan fabrikantia, eta etorri zan gizon haundi bat beste lagun batekin. Eta han negon. Eta arrayai beida ta hola bihatza sartzen, da nei hori ezitzaidan gustatzen, eta beidatu einiyon eta nonbait beidatu: «Zu altzea hemengo aintzaille o kontu eitten diyozena edo? —Bai jauna! Zer nahitzun jakin, o? —Arrayau oso hotza do. Ze, nolaz?— eta —Beida!, hara esangoizut». Esan-nyon. Ordun Joxe Marin arraya neukan Panplona bialtzeko, eta: «Iruitzen al zaizu hola atzaparra sartzia?— ta —Kontuz!, e, ze nee arrayai nik kontu eittetyot, eta nik pezela hola bie este basterretikan iten badezu, bai!». Beidatu ta farre intziyan, bestiai beidatu ta farre entzioten. Hola eintzun da esaten: «Arrayau oso hotza do —Bai! Hara es, esplikatukoizut. Hau da nee zuriya, bañan nola Gijontikan, ekartzen duten eta oain maiatza inguruan



Otxotorena Errazkin, Bittori eta Azazeta Zubiaurre, Faustino elkarriketan, haren etxeurre parean, Donostiako kaian. 1984.03.05.1. bazkalostea. (AB,jm).

GEG

E

Soldata (Arrain-
tsaltzaille-)

tripa iriki eiten zaion freskotako ... ta nik erakutsiyot nola egin, ta harra-
patu orduko jela botatzeyote ta ... arraya, ... oso hotza dolako. Eta goiko
jelakin bakarrik ezitzaidan iruitzen neikua, ta ez! Bañan esatenau gutxiyo,
denboa asko galtzen dula ta gutxiyo harrapatzen dula ta etzayola komeni
esatenau, bañan guetzako bai, hau hola da ta». Behiñipiñ aurria hartu zun
jela deamaten eta ia jela pixka batekin ekartzen zuten eta arrayak dife-
rentzia haundiya izatentzun. Geo ... guk eta orduan esan zian gizon horrek:
«Ta holako arrayak eta arrai zea, jelik gabe datoztenian da, arraya eros-
teko ba aldezu posibilitadeik?— ta —Bai!, bai!, erosteko, ta ezauera baau-
kat. Oaiñ diruik eztet— ta —Ez al dezu diruik?— eta —Ez! Oin nik nahi
nuke arraya erosten baldin badet arraya errez ibiltzen dezunian konfor-
midadia ta taloya». Ta holaxen in nitun *parrokiano* onak, zeatikan jun ni-
tzan, honek ein lezaken, igual enkargatzen zigun kamioi bat ... Eta holaxen,
jende onakin topatu, zeatikan jende ona badaude tartian; nei esaten die
txarra, bañan nik jende onakin tope izan det ta hala baldin bazu lan, *txan-
pona* zeu... eta *jornal* bat, zetan ..., bañan jende horrek asko esan nahi du

A.—Bañon bi eretara zeon lan itea

OE,b.—Bai!

A.—Ose ...

IV.10

OE,b.—*Fabrikak eta freskoako*Bitoria
Kalahorra

A.—Fabrika eta, askok Komisiyo txiki bat zan. Ta beste era batea zan
zuk klientela bat bazenun. Ba esateko, *Bitoriya* o *Kalahorra* o, nola esango
nizuke ba, Palentziara. Han asentadore bat saltzen duna ta eskatzen ziz-
kizuna hogeitabat kaja ta orduan zuk handik ia jartzeyozu ia plazo ta guzti
... Hori ia zuk saldu ein dezu, bestia, ez!, bestia da komisiyua. Bataz bezte
ba bi modueta lan itentzan, bi modueta lan itentzan

AB,jm.—Ta modu horretara, bueno lana

A.—Eta beste modu bat ... bazan. Igual, e, zea komeni zaizu, e, jakitia
edo ez

AB,jm.—Bai, bai, bota, bota!

Barzelona,
Zaragoza,
Madril

A.—Bestia zan plaza handita: *Bartzelona*, *Zaragoza*, *Madrida*, zu bialdu
arraya eta han asentadoriak eta haiek beak jarri preziyua. Eta orduan ga-
lerak, izan litezke bai irabaziyak bai galerak, bañon beak nola eskutan ze-
katen, askotan eta askotan galera izatentzan, beak jakiten zutenian hemen
arrai asko zala, hemen, gu baño lenao ja jakiten zuten arrai asko zala, e,
ta orduan beak jartzen zuten preziyoa. Ta zu hango berri etzenekizun, mer-
katu handiya nola baizan! Eta hola lan itentzan: batzutan *plazeta*, beste
batzutan *komisiyoa* ta beste batzutan *salmenta*. Salmenta gutxi. Plaza txiki
hoiek Bitoriya, Kalahorra ta hoiek, plaza txiki hoiek berrogei kaja, hoge
kaja o hamar kaja, hoiek salduak, klientela bezela ta bestia plazeta, ta
bestia komisiyua, modu horta lan itentzan

AB,jm.—Hiru moduta

A.—Bai!

AB,jm.—Eta honela lanean, e, hemen beste jende gahiago ibiliko zan,
ezta?

OE,b. eta A.—Bai, bai, bai, bai, bai!

IV.10
Erdaldunak

10. 31

A.—Bañan hor oker handiya zan, e, *asentadore* handiyenekin, zeatik
hoiekintzian Madriden da indartu beak, beak zebilkiten hemengo

OE,b.—Goraberak

A.—Gu bañon geyo zebilkiten hemengo goraberak

AZ,f.—...

GEG

E

A.—Baai!, bai gero! ... artesanala, etorri zan, arrai eta bea bakarrik erosten, bea bakarrik, inok konpetentzik ezin egin, beak erostentzun eta beak ganbaran sartzen zitun Madriden eta atea sal, ateatzen zun salduala eta beak preziyua iten zion eutsi. Eta behin aurka hasi nitzan ..., azkenian beak eintzian hemengo bentako

OE,b.—Hemengo plaza beak mugi zeatzen zuten, manipulatzten zuten, telefonuen goraberaz, zeatikan zeukaten, e, nola esango genduke

A.—Konjeladoriare bai, gauzak aurreatu eintzian eta beak, e, ezkutan gauzak eta beak menderatzen zuten

OE,b.—Gaur galera o galaz bestiai galduazi iten baziyon beak este konjeladoran o sartu ta hurrengo egunean ateatzen zun nahi zuen preziyoa, ta modu horta

A.—Bai komerzalizaziyoa, beak aurreatuo gu baño. Hori hemen in bazan *arrantzaliak beak* edo bitartekoak, bañon hemen, e, konjeladorea euki ta «koño gaur arrai geyegi dago»

OE,b.—Jeistentzanian ...

A.—Arrai geyegi dago? Orduan, konjelaziyoan sartu eta ez bialdu *Madrida* edo *Barzelona*. Biyar egualdi txarra? Bota oan arraya. A hortaz, aurria hartu zuten haiek

OE,b.—Bai gu bañon azkarro zian konjeladorak eta gauza hoiek

A.—Modu geyo o

OE,b.—Diru geyo o

AZ,f.—Danetatik pixkat

OE,b.—Bai!, bai! Horrek, horrek pixkat zea... pixkat ez, asko!

A.—Ugari zegon arraya ta danak bizitu giñan, bañan

OE,b.—Bihar haundiya zegon *España* guziyan eta

A.—Baña hori ia esaten aigeana konjelaziyoa ta hori azkeneko urtieta da, e, azkeneko urtieta

OE,b.—Lehenbizi dana saltzen zan baña geroa konjeladorakin da hasi zian negoziatzten

A.—Bai!, bai!, bai!, zea kontrola ... tzen zuten

OE,b.—Horrek galazi, horrek kalte intziyon

A.—Arrayai, preziyuai

OE,b.—Klaro preziyuai!, bai!

A.—Ta gero *Frantzesak* bedekatzen, debekatzen, debekatzen. Gutxitzen, gutxitzen. Akabo. Donostiko arrayak!

AB,jm.—Eta gaur egunean hemen, e, e, arrai gorabera ba esan dezue gaur oso gutxi, ezta, eta arrai gorabera mundu hontan emakumeak lehen beste jarraitzen dute lanean?

OE,b.—Ez!

AB,jm.—Ez!

OE,b.—Gero beste aldetikan, bestaldetikan este enbarkaziyuak ia urte asko dituztenian zartu iten dia eta aleitu da momentu bat arraya lehen bezela harrapatze etzana, eta gero enbarkaziyuak zarrak zianak saltzen hasi zian eta jende, nik eztakit jendia o zerkin *txartu intzan gauza*, txartu intzan eta batzuek, aspertuta zeudenak o urtiak zebizkitenak saldu, enbarkaziyo txiki batekin eta bizimodua beentzako atea ta hola in dute. Enbarkaziyo txikiya gehitu in da, bañan oso txikiya!

A.—Donostin, Donostin asko saldu dia hemen flota!

OE,b.—Asko gutxitu da! Getaya ta hoyek ederki!

Madrid,
Barzelona

Espainia

Frantzesak

Aldaketa

GEG

E

A.—Makinakin da hola ibiltzen dia

OE,b.—A!, enbarkaziyo handiyauak egin. Geo miloi asko kostatzen dia oaiñ enbarkaziyoyiak, zeatikan leno egurrezkuak zian eta egurra zartu iten da. Burniyare bai bañan dituzte beste konponketa batzuek eta indian enbarkaziyuak miloyak kostatzentzian da hoiekin joaten dia urrutiro ta iten dituzte egun asko eta gañea dute konjeladora beak, konjeladora o frigorifikoa, este batzuek konjeladorak eta danak dituzte zeatikan atun

A.—Bai denak, denak! Oaiñ denak, ama ...

OE,b.—Eta ia modu honta beak defenditzen dute hobeto, bañan nahi det esan asko, asko diferentatua guk lan ein genun hareitikan honea!

AB,jm.—Eta arrantzan haseratik zuk ezagutu zenunetik hasita arrantzan hemen ibiltzen zienak, e, danak hemengoak ziren?

OE,b.—Bai! Este bapore jabiak eta, bai!

AB,jm.—Bai!, etaa

OE,b.—Jendia re, bai!

AB,jm.—Jendia ere, bai! Ta noiztik hasi zan hori pixka bat aldatzen edo?

OE,b.—Gero!, gero! Hori, ba, noiz hasiko zan? Geo jendia, este fabrike o lana oandikan topatu gabekuak, e, nola esaten da lenengo lana este zea mutil gaztiak baporietan aukesea noabaitea joan behar zutela ta geo lana topatzen zutenean aldein. Beste batzuek, berriz, e, aldrebes: lana galdu ta enbarkaziyoa joan. Ta hola

AB,jm.—Hori hemen euskaldunak eta kanpotik, eta kanpotik etorritakoak



Otxotorena Errazkin, Bittori eta Azazeta Zubiaurre, Faustino elkarrizketan haren etxeurre parean, Donostiako kaian. 1984.03.05.1. bəzkalostea. (AB,jm).

GEG

E

eta danak, ezta? Ta zuk hori gutxigorabera zure iritzirako zenbagarren urtetik edo hola hori fenomeno hori bereziki hasi zan ematen?

OE,b.—Hori, e, sesentaizinko, setenta

A.—Hori *aldaketa*?

OE,b.—Bai!

A.—Gutxio esango nuke, zeatikan gu ... guen garayan dana merkatua zeon

OE,b.—Dana merkatua

A.—Guen garayan bateonbat, e

OE,b.—Beti!

A.—Bañan nola hasi zian ... kin gootuko zea oan Joxe Mari ta

OE,b.—Bai!, bai! *Santoñatik* ekar, etortzen zan

A.—Bai!, itxoin! Hasi zian

OE,b.—Nik ustet hiruroeitabosteko kontua dala

A.—Jendia ba lehorrea jo zun lana zegonian, hemengo jendia arrantzan hasi zana lehorrea jo zun. Hori, ba, krisisa etzeon oandik. Orduan, ba, izan leiken berroetitabos hirurogei o urtea lehorrea jo zun ta orduan hasi zian kanpoko jendiakin. Bai! Santoñarrak nahastutzen, bai hemen lehorreko lan egitentzuen, osea itxasokoa lehorrea jo zun puesto ona baldin bazakan eta intzan nazkatu. Eta oain danetik! Eta oain berriz, oain berriz badira baserritarrak itxasoa dijoaztenak

OE,b.—Hori nik ustet

A.—Zeatik *Getayan* da *Oriyon* dana

OE,b.—Gaztien eboluziyua o, o nola zerbait irabazi nahita nolabait jan behar eta

A.—Urte hoietan hainbeste arrai harrapatzentzana Santoñatarrak eta gurietan sartu zien. Hemen kostera egin antxuen eta been etxeta jun, diruak hartu ta been etxeta jun. Osea, arraya zeonian: hirurogei hirurotabostian da oandikan ondo saltzen zana ta oandikan arraya bazeona, bañon hiruroeitabost hiruroita hamarrian ia krisisa hasi zan

OE,b.—Bai!

A.—Hiruroeita hamar, hamabi, hamairu, hamabost ia arraya gutxitzen, gutxitzen, gutxitzen ikusi zan, bañon jende hua etortzentzan, itentzun

OE,b.—Bi kanpaña ta

A.—Eta diruakin jutentzan, oseake nahizut esan nahasketa handiya do hor, e, e, hor irabaztentzanian kanpoko jendia zegon, bertakua aldeia puesto, zea lehorrea, jendia bertakua albaldin badu nayo lehorra, zea sueldo bat baldin bada o fabrika batian edo

AB,jm.—Hori da, eta *hizkuntza* aldetik, euskara aldetik behin baño gehiagotan esan dezu adibidez, e, zuek, e, len erostuna esaten zenutena gero esportadorea ta, e, hemen hizkuntza aldetik, e, nola gertatu da hori? Hau da zure haseran dana euskeraz?

OE,b.—Dana euskeraz, baña gero nastatu egin giñan

AB,jm.—Da gutxigorabehera hori nola hasi zan da pixkabat esplika ezai-guzu eta gaur arteraño, ezta, nola gertatu dan hori edo

A.—Bañon gu, gu genekigunak, bai oriyotarrakin, bai getayarrakin, bai bermiotarrakin euskeraz

OE,b.—Guk dana eskeraz, bañan kargadoriak eta etortzen dianak *erdaldunak* eta gero este erostun hoiek ere erdaldunak eta erderai asko eman geniyon. Esangoizut, egun batian gizon batek bakarrik defenditu niun, es-

Santoña

Getaria,
OrioHizkuntza
(Euskara-)

10, 23

Erdaldunak

GEG	E	
Hizkuntza (Gaztelera-)		kualduna, arpegiya eman niyon, baporia etorri zan da: «Zenbat dezute, gutxigorabera? —eta — <i>Hábleme usted en cristiano</i> —eta bota zun zea korapilo bat, nola esaten da juramento bat eta —Chico!, creo que te he hablau bien, cuando me he dau cuenta que me has contestau en castellano te he preguntau en castellano, así que de que, la que habla cristiano soy yo, tú no! —ta orduan gizon batek esan ziyon: Tiene razón porque los que hablamos vascuence no juramos contra Dios, porque somos cristianos, pero tú has para contestar una frase y mal contestada has jurau contra Dios». Hara nola esateitzuten gauza, hasi eske nasketa ia gero danak erderaz, geyenak erderaz
Santoña		A.—Gerore etortzen zian kanpotik <i>Santoñatik</i> eta bolara hartan fabrikantia, izaten arraya zanian, udaberriyan OE,b.—Bai! A.—Santoñatarak asko etortzentzian baporiak, eske OE,b.—Ai, altzan bezela! A.—Bai!, baña ezauna zanian ba <i>euskeraz</i> eta erdalduna zanian <i>erderaz</i> OE,b.—Ta pixkanaka, pixkanaka ba nahastatu AB,jm.—Ta hasera, haseran zu gogoratze al zara kontuak eta holako gauzak <i>idatzi</i> eta hori nola egiten zan, dana erderaz ala? OE,b.—Ez!, ez!, ez! Eskueraz! AB,jm.—Euskeraz! OE,b.—Eskueraz! Eskueraz! AB,jm.—Idatzi ta dana? OE,b.—Bai!, bai!, bai! AB,jm.—Hor <i>Zubiaurrenean</i> ibili ziñenean eta? OE,b.—Baitaere!, baitaere! Dana eskueraz! AB,jm.—Eta <i>arropa</i> gorabera? OE,b.—Arropak? AB,jm.—Lehen garai hartan erabiltzen zenutzenak, arropak geroago eta gaurreraño OE,b.—Galtzerdiyak, este zuri ardilazkuak, batzutan azpitik galtzerdiyak genuela, beste batzutan hua bakarrikan, hua ta gomazko, e, eskalafoyak lenbizi ta gero gomazko bota batzuek hasi, este, azaldu zian, hola pantorrila erdiraño ta gutxiyo bustitzen giñala ta geo hayekin AB,jm.—Ze koloretakok? OE,b.—Beltzak zien. Haiek goma beltza (Berak jantzita daramazkianak erakusten dizkigu). Hara hau bezela. Ta gero hemendikan gora mihia hua eta listoi batekin lotzen zala AB,jm.—Eta eskalafoia, ze koloretakoa? OE,b.—Eskalafoyak, e, beltzak, este azpiya egurrezkua ta gaña larrua AB,jm.—Eta gañantzekoak? OE,b.—Mantalak, mantal baten bestia, e, gañian bestia, ta hola AB,jm.—Mantalak OE,b.—Mantalak AB,jm.—Ze koloretakoak? OE,b.—Beltzak AB,jm.—Beltzak OE,b.—Bai! AB,jm.—Eta soiñekoa
Hizkuntza (Euskara-, Gaztelera-)	10, 31	
Idatzi (Kontuak-)		
IV.10		
I.88	10	
	10, 31	

GEG

E

Otxotorena Errazkin, Bittori
Donostiako Urgullmendiko
«Paseo De Los Curas»
delakoan, kaia gainean,
ibilaldirakoan,
Azazeta Zubiaurre, Faustinok
eta biok lagunduz.
1984.03.05.1.
bazkalostea. (AB,jm).



OE,b.—Oandikan batenbat, bateonbat tankera emangoizut (farrez). Eta dirua baldin bazan, baña ez, esta bate erresa eros, ostutzeko, e, zeatikan hemen hatzaparra sartu einbihar da, eta blok eta lapitza

AB,jm.—Ezkerrekoan blok eta lapitza, eta eskubikoan?

OE,b.—Mukizapiya eta dirua

AB,jm.—Dirua

OE,b.—Eta ez pentsatu

AZ,f.—... amona grazia iten zian zeren batzutan bultua egiten zion txan-pona ta pla! pla! pla! pla! ta bultoa

10, 12

OE,b.—Este, ... arrai saltzetik etortzentzanian, ni orduan ezkonberriya nitzan, lehenguan askotan, ba, itxasoai beida o egualdiyai beida o pasarakoai beida eta zea, este egurra gero izatentzan baña lenotikan zea izatentzan saria bezela, este, nola izen bat zuten haiek, hola xabal, xapal xapalak, xaxki, xaxki zea, baña xapal xapalak eta hua mugitu bat eta pausuan zerian plasta! plasta! (AZ,f farrez) plasta! ta esaten genun zenbat diru dakar hor, *andre horrek* boltsiloan! Ziara izaten da ba pesetak da este hamar zentimoko kobrezko diru hura

AB,jm.—Bai!

OE,b.—Eta pesetak eta nungua zan andre hura, bañan plasta! plasta! ta plasta! ta ... zenbat diru dakar andre horrek! ..., bat kendu ta bestia jarri ta bat bustitzentzenian bestia gañian jarri ta zarrena gañetik eta

AB,jm.—Ikusten dut, e

GEG

E

I.88

OE,b.—Gañea apainduta, apainduta garbiya ta plantxatuta mantalakin kalea, e

AB,jm.—Beti?

VIII.61

OE,b.—*Teatroa* ta eozein tokita mantalakin joaten giñan

AB,jm.—Toki guztietara!

OE,b.—Bai! Teatro gutxi joaten giñan, bañan hola itzuli iten genunian

AB,jm.—Beti mantalakin

I.88

OE,b.—Mantalakin, da ze, ze dotore gañea! Zeñek paño, zeñek mantal hobio (farrez). Zarra, baña ondo! Eta berriya pasiatzeko

AB,jm.—Oaiñ mantal honi ikusten diot atzeko aldean, e, irekia dela, ez ta? (OE,b-k soinean oraintxe daramanagatik galdetzen diot)

OE,b.—Bai!

AB,jm.—Beraz, e, bere azpitik, e

A.—Gona

AB,jm.—Gona. Gona, ta baita ere beltza edo

A.—Bai! Beltza asko ibiltzen zan

OE,b.—Zeukazuna

AB,jm.—Eta gerritik gorakoa?

OE,b.—Gerritik gorakoa? Ba altzana

AB,jm.—Altzana, ezta? Zer ... ten zan gutxigorabera o

OE,b.—Bai!, bai! Modu hau

AZ,f.—Bai!, bai!, bai!

OE,b.—Modu hau

AB,jm.—Jertse bat eta

OE,b.—Bai! Jertse bat, zeatikan soñekua, bañan hotza zegonian, oseake hotza asko pasatzen genun, e. Jertse ta esku lanian iten genun jertsia, norbaitek hor zai eon bitartean da

AB,jm.—Hori da, eta buruan zer, pañuelorik edo zapirik?

OE,b.—Ez!, ez!

AB,jm.—Ez?

OE,b.—Nik, nik bai txapela ibili izandu det asko, zeatikan ni nago, este operatuta belarriko miñakin ta geo *trepanación con mastorbutitis* eta buruan hotza somatzen nuen da nik txapela asko ibili det, eta ... bastante, zeatikan ni berreun ... hotza daukat ...

AB,jm.—Eta gizonezkoak e, nolako jantziak erabiltzen zituzten?

OE,b.—Ba, galtza urdiñak eta alkandora urdiña, bai! Gero alkandoran orde, a, ez, ateatzen zan blusoiek batzuek, hoiek bezela, bañan zabal hoiek, modu hontan, modu hontan, hauxen

A.—Hauxe bea (Berak soinean daramana erakusten digu)

OE,b.—Bañan zabala, zabala

A.—Ta galtzen gañetik bonbatxua

OE,b.—Bai!

A.—Ibiltzentzan

OE,b.—Ta hau lotzeko bonbatxuak eta botoyek ez, zeatikan botoi este, zaria trabatzen baldin bazan botoya hautsi ta gañea sariai kalte, hautsi iten bazan. Eta botoyik ez.

A.—Urdiñez jartzentzian, urdiñez mahon, mahon hontakoa

AB,jm.—Oiñetakoak?

GEG

E



Otxotorena Errazkin, Bittori Donostiako Aquarium-aren terrazan, ibilaldirakoan, Azazeta Zubiaurre, Faustinok eta biok lagunduz. 1984.03.05.1. bazkalostea. (AB,jm).

OE,b.—E?

AB,jm.—Oiñetakoak, ze oiñetako?

OE,b.—Gizonak? Bota haundiyak, bota este, guk ibiltzen genitun bota klasiak esan dizutenak holakuak

AB,jm.—Bai

OE,b.—O, bota haundiyak belauneño

AB,jm.—Beltzak

OE,b.—Beltzak, beltzak o hoyek izatentzian. Aldatu Frantziyan da erosten zituzten

AB,jm.—Ta bururako, ezer?

OE,b.—Txapela

AB,jm.—Txapela

OE,b.—A, ta sirak, sirak

A.—Sira nahi ta beharrezkoa zan, sira

OE,b.—Bai!

A.—Zeatikan gue aitan denboran etzeon

OE,b.—Ta txapela re bai, txapela zea, nola esaten zaio?

A.—Koasta

OE,b.—Koasta

A.—Koasta zan txapel hua

OE,b.—Bai

GEG

E

A.—Hemendik hasi ta

OE,b.—Sonbrero bat bezela

AB,jm.—Bai

A.—Koasta ta sira dana osua, e, goittik berakua, galtza ta

AB,jm.—Ze formatakoa zan hori, koasta edo esaten dezuen hori?

A.—Koasta?

OE,b.—Hori? Nola esango nizuke, esploradorien txapela bañan este, harenta berutz

A.—Hemen bera, berutz

OE,b.—Hemen berutz

AB,jm.—Bai!, baita! Eta itxasora joaten zirenean, e, beste zerbait eramaten zuten, e, arrantzalek, hau da, jantzi hori gutxi gorabera eta beste zerbait, e?

OE,b.—Eta sira, euririk pasatzen ez

A.—Neguan jertse loriyak eta zapiya lepuan, edozer pañuelo hartu ta

OE,b.—Eta gero sira. Haizia gogorra zanian sira jantzi ta etzuten ize somatzen

AB,jm.—Baita

OE,b.—Zeatikan sira este, oain gomazkuak eta dian bezela orduantzan *aceite de linaza* eztakit zeekin, eta dana gogor gogor geatzentzan eta hai-zeik pasatzen ez

AZ,f.—Zamarrak ere eramaten zuten

OE,b.—Bai! Zamarrare bai!, bañan

AB,jm.—*Aceite, aceite de linaza* delako hori, hemen etxean bertan, e, landuta

OE,b.—Eman baño bat o beste, beti ematen zan, bañan erosi hor kale Puerton beleruena izaten zana, bazian dendak horta dedikatzen zianak

AB,jm.—Eta, ea, bukatzea joango gea gaurko saioa. E diruaren gorabera, hemen, e, lana egiten zenuten lagunok eta. Dirua, zer zeuok mane-jatzen zenuten, ez zenuten, etxean edo nola zan hori, nola?

OE,b.—Nola zan arraya, nola lan iten zan, hala irabaztentzan

A.—Nahi dizu esan zeñek ibiltzen zun dirua?

AB,jm.—Ez bañan gero *diruaren administrazioa* zeñek eramaten zon, e

OE,b.—A, emakumeak!

AB,jm.—Emakumeak ala gizonak?

A.—Emakumeak! Gure amona ta gure ama nik hola ezautuittut, eta nik berdin segitueta. Nere amona, ama ta ni, hor dituzu hiru!

AB,jm.—Gizonak irabazten

OE,b.—Oan gizonak esatentzun. Behin hoetamairu, este, arrua o kaja izan ezkeo bat iten zuten *txakurrena*, este, arrai partia, partitzen zuten etxeako portziyo bat ta batzuek arrai hura etxea eraman biarran iten zuten hemen saldu, ta txanpon hura kontuz ikutu gizonai (AZ,f farrez). Zergaitikan nee gizona behin gertatu zan, este mesanotxen uzten zun ta nik diru hura ez nun ikutzen, bañan egun batian bihartu nitzan ta: «Oi!, nee gizonak hor dauka. Hartu ta guazen». Ta momentuan diru falta arkitu zun ta momentuan etzian esan bañan gero hurrengo egunian o gooratu zanian, eztakit nik este gaizki iruitu zitzaion hartu ta ez esatia, o hori ez naiz gooratzan seguru. Bañan ... dirua ikutu? Ezta, ezta pentsature eta ze okasiyua armatu gendun! Ta nik esaniyon: «Nik ez neukan, eta jatekua jarri bihar, da zuk dirua euki hor, da nik hartu ez? Zergaitikan ez? ¿Ze naizu? Zuk

I.122

10, 31

Txakurrena
I.122

10, 12, 15

GEG	E	
Tratu I.122		dirua hor daukazula ni ez naiz joango zorretan, e!». Eta sekulako okasiyua jo genun, bañan geo <i>tratu</i> egin. Azkenian: «Bueno!, arrazoia emateitzut, bañan nei hartzenazunian ... eta gañea ein bihar nazu eman —A bai!, baña zuk ekartzen dezunian». Bañan uuuuu! kontuik txakurrena, sagradua!
Partila		A.—Eta <i>partila</i> andrientzat OE,b.—Bai <i>partila</i> andrientzat A.— <i>Partila</i> , irabaztentzana AB,jm.—Irabaztentzana <i>partila</i> A.— <i>Partila</i> , andrientzako AB,jm.—Hori andreantzat, bañan txakurrena OE,b.—Ezta ikuture! AB,jm.—Eta hori hemen danak berdiñ izango zan, ezta? OE,b.—Berdin! Ni enitzan bakarra. Nei gertatu zaidan hori ta nik esateizut nee kontua. Bañan bestiak ere, Jesus! «Eta zuk gordetzenun diruik», oseake «nik ez det ikusi» ta «bai berez ...» aitzen nitun nik. Bañan nik neria esateizut, hartu eta hue okasiyua ta nik: «zuk dirua hor daukazula ni enaiz joango zorretan» eta, bueno ... gero eman zian eta konpondu giñan, beak bihar zunian nik ematen
Gerra	31, 32	A.—Hemen gaizki gaizki pasa zan <i>gerra</i> , gerra ondoren ... hamarreko zea hori, ta berroeiko AB,jm.—Aldi hori
Gosea	12	A.—Alde hori, <i>gosia</i> pasa genun OE,b.—Izugarriya! Izugarriya pasa zan, zergaitikan ... fameliko gauza da bañan, nee gizonak etzuen erretzen eta kartila ein bihar zan, zigarrua, e, tabakua erosteko. Ta nik bea itxasuan zan bitartean <i>kartila</i> ein eta <i>tabakua</i> ekarri etxea ta halakoi batian este, jaboia emateie ta azukria emateko truk, zeatik hemen jende asko etortzentzan eskeintzen: «Mire, si me da usted uno poco de pescau le doy esto». Bueno, según ze bihar zenun. Txitxarro handiya ta jendiai eman? Ta arrai gazitua, Jeesus! Nei etxekoandriak mila bider harrapatu zian, ematen. Behin ere etzian ezer esan, ta hau beste gauza berria ematen nun bañan abusoik eztala eta: «Nik erre, nik fumatzen ez ta tabaku hau hemen? Zer dala ta? —Oi! Eztao <i>jaboirik</i> . <i>Mantekilik</i> eztao. Zea oliyoik eztao. Eta hor etortzen dianak truke itteko —Hau etzait ondo iruitzen, e, nik eztet zigarroik erretzen ta nik tabakoik etxea, ez!». Da hor
Jaboi, Mantekila		AB,jm.—Ta zuk ekartzen zendun ba beste gauza batzugatik trukatzeko
Andaluzia	12, 31, 32	OE,b.—Bueno!, ta ezitzaion ondo iruitzen. Geo halakon batian hasi giñan ... etxekoandria <i>Andaluzira</i> , arraya bialtzen ta txoferra zan ba, ta esantzian: «Aizu honekin nola zabiltzate? —Gaizki! —Nik ekarri nezake, zerea nijua, <i>Valenzira</i> nijua ta ekarri nezake, bañan bos litrokua dira —Bos litro ... —eta —Bueno bañan beatzi lagun zeate —Bueno, ekarri ezazu. Konfiantza al dezu? Ekarri zazu eta orduan dirua emangoizut, oain eztaukat». Ni hola izandu naiz, e. Jatordua eta ekarri zizkigun hiru eta: «Zuen artian partitu eta ezin baldin bazu, nahi bazu bi, ta nahi bazu bat, bañan komeni zaizute zeatikan konde zea zebuakin» ... Sekulan eztet jan nik sebuakin gauzik. Naet esan gizon horren bitartez bea eskeiñi zun eta etzitzaian faltatu nei <i>oliyoik</i> etxian eta hala moldatzen giñan, bañan ondo, e, ondo, bakutzak altzunian pagatu. Iriki. Botella litrokua ekarri, bete ta «ez, ez nahikua nahikua neetzat ...». Eta modu horta. Bañan ondo konpontzen giñan, eta geroa, beste txofer batzuek, e, oso onak! Sotien aizpen gizona, Bitor izena zuen da
Olio		A.—Haiek, e, Sofia ta riojakuak zian

GEG

E

Marrubi
haundiak

OE,b.—Bai! Riojakuak zian. Este ... Este horren gizonak Bitor zuen izena eta esantzian: «Te voy a traer un regalito —A mí? —Bueno, ya repartirás». Gero holako zestakara haundiya *fresones*. Jesus! Nik eztakit zer gendun bañan txoferrak eta sekulado zea, e, istimaziyua eta erregaluak. Lenengo erregalua ekarri ziguten da gero: «Ez al da hori ekarri ziguna? —Ta bai —Esanitun ekartzeko. Gooratu ziunau». Ta gero merke ekartzen ziguten eta bai, bai, jan kontuan konpontzen giñan

AB,jm.—Orduan, e, bai bukatu ingo degu. Orduan, e, zuen etxean, ezta, hasi amonarengandik, zuregandik urrena eta oa in alabarengandik, amona, ama, eta alabarengandik pasatuta eta zuen inguruan

A.—Amona aitten aldetik, e

I.122

AB,jm.—Bai! ... Eta gero zuen inguruko *beste emakume askorekiñ* ere ba, berdin, horrela izanda. Gaur egunean, adibidez, emakumearen, e, hori ezta indar gehiago behar duela ta abar da

A.—Bai!, bai!

31, 32

AB,jm.—Zuek zuen bizitzan, e, izan duzenagatik ezenukete zeuontzat hori hainbeste behardanik edo zuek

OE,b.—Ez!, ni ondo!

A.—Beti izan degu eskubidea, zea

OE,b.—Ni ondo moldatu naiz!

AB,jm.—Eta orduan zereskatuko zenukete zuek, e, gaur egunean ba ho-



Bittori Otxotorenaren
haur bat.
(Familiaren argazkia,
Bittorik utzia).

GEG

E

rretan dabilten emakumeei, ezta hori lortzeko zer beharko luketela (Denak batera ari dira). Zuek, hau da egin kontu ni horietako bat, emakume bat naizela, ta, berdin da ni gizonetako bat naiz, bañan esaten dut bueno hoi nahi dutenentzat, ta ni re pres nago ba lor dezatela heuren askatasuna ba danak bezelaxe, zuk eta zuk zer

OE,b.—Nik?

AB,jm.—Esango zenukete egin beharko luketela

OE,b.—Nik? *Lehenda orain ezta* gauza hobeorikan alkar entenditzia bezelaxe, zergaitikan batzuek dia, zeatikan gauza asko aitzen dia. Batzuek tia gizonak mendeatu diautenak emakumia eta zea neskame bat bezela o istimaziyuak. Gu ezkea hola zeatu, *guk lan indeu*, beak lan in dute, ondo konpondu gea, ni oso ondo eaman naiz nee gizonakin, nik eztaukat ze esanik gauza horrekin. Gauza asko iruitzen zait ia limitetikan pasa iten dila. Beak esaten dutela hori dala hobia? Nee jakinduria, nee bizi izatian ni konforme behintzat. Eta umiai ere beste modu batea erakusten zaiotela, lengo aldian ere bai, eta gu nik umiari ondo erakutsiyotet, ondo, onak dia, dakite beria gobernatzen eta dakite beren tokiyan eoten. Hori neetzako gauza haundiya da. Ezta ni bestiak ez bezelakua bañan ni gauza horri zea, zea haundiya emateyot, garrantzi haundiya

A.—Zuk zer esan nahi dezu, hobe umiak amakin, ezta?

OE,b.—Klaro *umiak amakin* da amak, nik zuei erakutsi dizuten bezela

A.—Bañan zuk beste aldetik jotzezu zuk, harek zeatzen dutena

AB,jm.—Bai!, bai!, hau da, zuk esan dezu zeure etxean, e, zeure burua gobernatzeko gizonarekiko ta gizona zurekiko ere bai eta esan dezun bezela, entenditu eintzeatela, bañan beste emakume batzuek esango dute ba gure etxean eztago entendimenturik, e, gizonak esaten duena egin beharra dago, eta orduan, orduan zer egin beharko lukete emakume horiek? (biak batera ari dira hitz egiten)

A.—Hori bestien, bestenpian ezin da bizi, hori normala da. Nei iruitzen zait emakume bat neskametzat bakarrik dagona ezin leikela

OE,b.—Bakoitzak bere zea behar du

A.—Ezin leikela neskametzat bakarrik baizikan tori heltzen badiozu berroei duro ta tori berroei duro eta galtzerdi pare bat erosi behar baldin badu beretzat eskatu beharra, hori eztet neetzat iruitzen

AB,jm.—Hori da

A.—Zeatik bea etxetik kanpoa lan iten badu, emakumiak, e, bee lana du

OE,b.—Bai!

A.—Oaiñ arte kontuan hartu eztana, oaiñ arte kontuan hartu eztana, umiak hazi, etxian lan egin ta hori dana ezta batebate kontuan hartu. E asiske beak hartzen dana, ba biena izatia, ez gizonena bakarrik

OE,b.—E, *bizimodua diferentatu* in da, e, diferentatu in da. Oseake badia emakumiak gizonak haiñ beste irabazten dutenak ta, klaro!, harrek bee indarra dauka. Gizonak badia ondo irabazten dutenak eta mendian euki nahi dutenak eta hori re ezta ondo, hor bihar da beti, este alkarrekin bizi baldin badia konpondu inbihar dia, nee iritzira, eta

A.—Oaiñ nik gauza bat esango nizuke oaingo bizimodu hontaz, e. *Emakumeak lanea* jutun gea bañon beste iñon umea utzi biharrari eztet ondo ikusten. Neri iruitzen zait famelian babestasuna bihar dula honek. Askok, askok gue moduan ezautzen degu, lanea jutun dia bañan amonak daude babesian eta amonen gorabera hori asko da, zeatik ama, amonen, amen aurrekoa amona da eta amonen gerokoa ama, orduan oso alkartua daude

OE,b.—Bai!

I.130

I.122

I.130

GEG

E

A.—E, eta ama edo amona, ezta ama bezela bañon berdintsu (Biak bateraari dira), etxeko babestasunako, e, etxeko babestasuna. Baña neskaxa batei eman eta eztakizuna zein dan, eta harren harren, nola esango nizuke

OE,b.—Harren gora

A.—Harren gorabera, harren influentziya edo harren zela zer hartuko ume horrek, zeatik amana, amakin baldin bado, amena hartzen baldin badu neskaxa batekin baldin bado neskaxena hartuko du ohituerak edo ikas-teko gauzak edo

AB,jm.—Bai

OE,b.—Hori gauza zea da, e

A.—Eta larriya da hori, e, zeatik lanea juten dana gero etxea etorri taaaaaaa, eztaka gogoik ba umiai negar eiten badu ba pazientziyaz. Latza da hori, e, hemen beste jeneraziyo bat dator, hori ... oaingo umeak, e, guarderiyen da daudenak hobe esateute, hobeitu eiten dila sozial, e, *mal social* ez da. Balitezke, balitezke bañon ia fameliya puskatzen dijoala piskanaka piskanaka, hori heurok diote. Nie iritzira, e, ikusikozute zuek edo

I.122

OE,b.—Eta *gizonak* lan iten baldin badu eta nekatuta baldin badatozte kopla gutxi dute. Bai bakoitzak bee espanziyua o nola esaten da lasaitasun pixkabat nahi dute, zeatikan etxea etorri eta ein behar baldin badu hua gobernatuta do, eta beste bihar baldin badu ere

I.130

A.—Geo beste gauza bat, beste gauza bat. Zuk *umia* emaiizu neskaxa batei, e, hemezortzi hoge urtekoa, ondo preparatuta al da neska hori umia zaintzeko? Zeatik umia da, burua garbiya daka eta hua han dijua dana jasotzen, beree aldamenean duenen gauza guztiak jasotzen. Orduan neskaxari, neskaxari ondo prestatua al dago umia zaintzeko, ez naet esan fisikoa bakarrik baizik, osea ez dezela miñ hartu hau ta hori ta hura, baizikan bide batetik eramateko edo mila gauza

AB,jm.—Hori da!

A.—Bee intelektu eamateko, preparatua al do neskaxa hori? Eozeiñi emarentzaio umea, zortzi ordu asko dia, e

AB,jm.—Bai, zuk esan dezun bezela diferentatu egin da hori

OE,b.—Bai oso!, oso!, oso!, oso!

AB,jm.—Diferentatu egin da

OE,b.—Geo gaztiak, e, leno ordu bat zuten etxeako, oan orduik ez dute (Biak batera ari dira hitzegiten).

A.—Hor, hor zeon tokiya jende, jendea preparatuta, dakiena zer dan ume bat eta nola eaman behar zayon, orduan ba eztakit nik, ..., amen orde-zkoak, amen orde-zkoak behar lukete, ez eozeiñ neskaxa, amen orde-zkoak, jendea preparatuta. Amak lanea jun behar baldin badu, zeatik hola, dirua hola do, eta orduan ekarri dezu eskola batzuk edo gela batzuk jendia preparatuta dagona, amen orde-zkoak, ezta behiñe izango aman orde-zkoa bañon ein leike amen lana

AB,jm.—Bañan aurretik hortarako gertatua ta ikasia

A.—Ikasia

OE,b.—Bai, bai!

AB,jm.—Ederki, bueno ba gaurko saioa (Telefona hoska hasten da)

OE,b.—*Gauza batzuek konprenditzen ditugu*, bañan beste batzuek, ez-takit

AB,jm.—Hori da

OE,b.—Da erantzun nahizun eman danak, zeatikan gu gure etxietan, e, alkartasuna ta izan genituen, hor aitzen dian gauzakin ezin da

GEG

E



Bittori Otxotorenaren senarra eta semea. (Familiaren argazkia, Bittorik utzia).

AB,jm.—Ederki

OE,b.—...

A.—la igual ordua dazakute, gu ai gea, hasi gea

AB,jm.—Ez!, ez!, lasai!, ez!, lasai!, gaur, e, larunbata, zapatua ta hain xuxen, e

OE,b.—Zapatua, *bizkaitarra al zea?*

AB,jm.—A, eztakit nungoa naizen be, nungoa naizen be (OE,b.—farrez)

OE,b.—Alazi ikusi zuten ba

AB,jm.—Nola?

OE,b.—Alaziko ikusi zutela

AB,jm.—Bai

OE,b.—Nungoa zean? (Denak farrez)

AB,jm.—Ni gipuzkoarra naiz, gipuzkoarra naiz

OE,b.—Ba zapatua ez dute esaten gipuzkoarrak, larunbata!

AB,jm.—Bai, oaiñ, e, ni, ni naizen herrian zapatua esaten da, eta gero bizkaian ere bai zenbait tokitan, e, zapatua

OE,b.—Orduan alderdi hontakua, o, bestela hemengua hemengua ezea, erdi parekua ez

AB,jm.—Erdi parekoa ez, ni, e, ataundarra naiz

OE,b.—A, ta *Ataunen* zapatua?

AB,jm.—Zapatua, zapatue

OE,b.—Txokatzen zait, asko!

AB,jm.—Bai!, bai!, zapatue!

OE,b.—*Goizueta* ta Ataun da hoiek danak euskaldun euskaldunak tia

AB,jm.—Hori da, hori bai, ba han, e, zapatua esaten degu zapatue, ta gero Bizkaian ba eon naiz ni Ondarroan, han, e, irakasle ikastolan

OE,b.—Bai

Galdegilea

Ataun

Goizueta

GEG	E	
Ondarru		AB,jm.—Eta hangoa ere badaukat OE,b.—Behiñ, behiñ <i>Ondarru</i> ezkeo euskera ezin det nik ulertu, horko euskera ezin det ulertu AB,jm.—Ia OE,b.—A hor AB,jm.—Baita baita
Tolosa	23	OE,b.—Guria, e, <i>Tolosa</i> aldekoa ia beste, garbiyo iruitzen zait dala AZ,f.—Bermeokoak eta etortzen dianian da OE,b.—O, euskeraz, euskalduna zera? ta noski, hasi eskueraz da erderaz segi bihar, zeatikan ezin konprenditu ta AZ,f.—Horire beste datu bat da, e, erderazko hizkera hori ta hori kurioso da, e. Bermeotarrak etorri ta behiñ nere amonak esaten zuten azkenian erderara jo behar
Hizkuntza (Gaztelera-)		OE,b.— <i>Erderara!</i> A.—Bañan beak okerra ... Hasten dia euskeraz da ... bea ezin segi da: «Te voy a decir en castellano para que me entiendas», ni lasai negon, e, segi zak, segi zak, lasai lasai aber zerbaít, beak azkenian ezin, bañan (farrez) AZ,f.—Eske beraiek fama hori dute, zea zuen euskera bentanie ta ... txo ta (farrez), ta beraiek ere pentsatzen dute gaizki iten dutela OE,b.—Ez baña gauza dotoria dala esateko: «elegantia da hori», (AZ,f farrez), euskeraz ta erderaz A.—Bai bueno, guere guere horta gaude ia (farrez denak) OE,b.—Ia nastatu gea, nastatu gea, bañan <i>euskeraz</i> gu bezela iten duna-kin iten deu, ezta egiya? AZ,b.—Bai!, bai! (farrez) OE,b.—Asieske ze esango de AB,jm.—Ederki! Oso ondo! AZ,f.—Bai
Hizkuntza (Euskara-)		

3

**Etnografia Egutegia. Donostiako Kaialdean
OTXOTORENA Bittorirekin argazkiak ateratzeko
AZAZETA Faustino eta biok:
1984.03.05.1.16/17:30**

Lehengo astebukaeran telefonoz bere etxera deitu nion eta ama atera zitzaidan Faustino kanpoan zela esanaz. Aste honetan Bittori eta Teodorori argazkiak ateratzea nahi niela eta aurretik Faustinek haiei nere asmoa jakinarazi zietzaieen semeari azaltzeko eskatu nion. Baietza eman zidan.

Gaur, bazkal denboran deitu diot Faustinatori. Oriandik nere argazkituekin ez duela hitzegin eta berehalaxe egingo duela agindu dit eta berdeitzeko eskatu ere. Halaxe, berdeitu diot eta Bittorik onartzen dituela argazkiak baina neretzat izatekotan eta ez inon argitaratzekotan; eta Teodorok inolaz ere ez dituela onartzen argazkiak,

lehen orrialdetan agertzerik eta horrelakorik ez duela maite eta.

Bittori, bakarrik zegoen gaur etxean. Pena hartu dut, lehengokoan bezalaxe gaurkoan ere bere alabaetariko bat etxean egon zedin komeni baitzen argazkiak berari ere ateratzeko. Hitzun, lagungarri, garbosa azaldu zaigu. Denbora guztian Faustinoarekin elkarrizketan egon da. Nik birtartean argazkiak egin dizkiet. Etxe barrenean, Faustinatori esan dio gaur kontu berri gehiago ateratzen zaizkiola gauza konkretuetaz mintzatzegatik, bapatean ordez. Kanpora argazkiak egi-tea joan gaitetzen proposatu digu Bittorik, Paseo de los Curas-era edo. Holaxe urten dugu, eta beste argazki gehiago ere egin. Etxean zitueneko batzuk ere gu ordurako bilatu eta gertutu dizkigu. Batzu hartu dizkiot etxean hobeto aztertzeko. Oso lagungarri egon da, eta bere karakter handia hobeto bistaratu zaigu.

BIBLIOGRAFIA

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin

- 1984.09 «Herri Arrantzaleen Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala (Lehen Zatia)», ok. 273-307, in *Bermeo - Udalerrri Eta Itsasoko Gaiei Buruzko Aldizkaria*, 4, Bermeo: Bermeoko Udala - Kultur Batzordea.
- 1985 «Euskal Herriko Lurren Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala: Ataun - Aia, Agirre Josemarirekin Elkarriketan», ok. 565-605, in *Cuadernos De Sección: Hizkuntza Eta Literatura*, 4, Donostia: Edit. Eusko-Ikaskuntza, S. A.
- 1985 «Euskal Herriko Lurren Etnografia Eta Antropologia Soziokulturala. Lekeitio - Oleta: Leniz Urkiaga, Mariarekin Elkarriketan», ok. 47-99, in *Cuadernos De Sección: Antropología - Etnografía*, 3, Donostia: Editorial Eusko-Ikaskuntza, S. A.

BARANDIARAN, J. M.

- 1921a Lehen argitalpena.
- 1981 «Nuestro Empeño», ok. 1-5, in *Anuario De La Sociedad De Eusko-Folklore*, 1, (=A.E.F.), Donostia: Eusko-Ikaskuntza - Sociedad De Estudios Vascos.
- 1921b «Nota Preliminar», o. 1, in *Eusko-Folklore - Materiales Y Cuestionarios*, 1, (Baina nik antropologoen artean normalki deitzen zaien izena-

ren bidez azalduko dut bilduma hau, hots, Hojas De Eusko-Folklore = H.E.F.), Gasteiz: Imp. Lib. Enc. Montepio Diocesano.

- 1922 Lehen argitalpena.
- 1981 «Preliminar», ok. 5-6, in *Anuario De La Sociedad De Eusko-Folklore*, 2 (=A.E.F.), Donostia: Eusko-Ikaskuntza - Sociedad De Estudios Vascos.
- 1924 Lehen Argitalpena.
- 1981 «Trabajos De La Sociedad De "Eusko-Folklore" En El Año De 1924», ok. V-VI, in *Anuario De La Sociedad De Eusko-Folklore*, 4, Donostia: Eusko-Ikaskuntza - Sociedad De Estudios Vascos.
- 1983a «Guía Para Una Encuesta Etnográfica (1975)» (=G.E.E.), eta Apalategi Begiristain Joxemartinek lehen aldiz euskeratua izenburu hau dararamalarik «Galdeketa Etnografiko Batetarako Gidaliburua» (=G.E.G.), ok. 203-319, in *Obras Completas*, 21, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- 1983b «Apéndice A La Encuesta "Etniker"» (=A.E.E.), ok. 222-227, in *Euskaldunak - La Etnia Vasca*, 4, Donostia: Etor.

BARANDIARAN IRIZAR, Felipe

- 1982 *La Comunidad De Pescadores De Bajura De Pasajes De San Juan (Ayer Y Hoy) - Estudio Antropológico*, Oihartzun: Litografía Danona, S. Coop.